

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1993ko martxoak 12

184. zenb.

**Aurrekontuak  
hilabete  
bukaerarako?**



**Adopzioaren  
esperientziak**



# Nola jaio zen OLA Tailerra?

## TALLERES OLA S. L.,

Antonio Iza, Martin Larrañaga eta Jose Miguel Ortigosa buru zituen Bergarako langile talde baten-gandik sortu zen, 1962 inguruan Ozaeta auzoan Suministros IZORen.

Beranduago, Bixente Aranzabal, Sebastian Alberdi, Felix Biain, Jesus Alustiza eta Jose Mari Unamuno batu zitzaizkien, eta 1967 aldera Olabarrera auzora eraman zuten euren iharduera eta 1972ko abenduaren 19an Talleres Ola bezala eratu ziren.

Euren helburua, ibilgailuen salmenta eta konponketarako antolakuntza bat sortzea zen, lehen 11 urteetan Citroen-Peugeoten banatzaile bezala, eta 1984tik aurrera OPEL banatzaile gisa.

## Zer da eta nor osatzen du OLA TAILERRA gaur egun?

Enpresako departamendu ezberdinetan lanean ari diren 25 langileko taldea dugu. Bergarako Olabarrena auzoan ditugu gure instalakuntza orokorrak, 5000 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera. Erabilitako ibilgailuen prestakuntza eta salmenta-gunea dugu, Bergarako auzo honetan bertan, instalazio orokorrekin aurrez aurre, eta horretaz gain, ibilgailu berrien erakusketak ere bai, Arrasateko Loramendi kaleko Zan.

Gure erantzukizuneko eskualdeko bezeroen zerbitzua behar bezala osatzeko, Asistentzia Teknikoko Zerbitzuak ditugu Aretxabaletan (T. Norte Garajea) eta Urretxun (Talleres Altamira).

## Zer produktu eta zerbitzu eskaintzen ditu TALLERES OLAK?

OPELek komertzializatutako produktuen Banatzaile bakarra da OLA Deba Garaia eta

Goierri Garairako.

Ibilgailuen munduko fabrikatzaile handienaren, General Motors-en jabekoa den punta puntako ibilgailu alemanen marketako bat da OPEL.

Gure aldetik, ibilgailuekin erlazionatutako zerbitzu osoa eskaintzen dugu, hala nola, ibilgailu berrien erosleei aholkua ematea, erabilitako ibilgailuak erosi eta berriz komertzializatzea, orientabidea, matrikulatzea, transferentzia eta finantziaketa bezalako zerbitzu osagarriak, eta nola ez, ibilgailuaren mantentimendua, mekanika, elektrikak, karrozeria, ITVrako diagnostia eta antzeko arloetan.

Asistentzia Teknikoko gure Zerbitzuaren ekipamendurik arretatuena dugu, gure markaren makina eta tresneriarekin, eta gure pertsonal guztiaren birziklatze-etengabeak, zerbitzuaren kalitate gorena eta gure bezeroenganako arretarik handiena eskaintzen ditugu, gure tailerarentzat saririk gorena lortzea ekarri digularik: Zerbitzuko 6 plaka.

## Zer inplikazio du TALLERES OLAK eskualdearen bizitzan?

Lehenik eta behin, eskualdeari ekonomikoki egiten dion ekarpena azpimarratu behar da,

lehen aipatutako 25 lanpostuei eutsiaz eta lortutako baliapideak bertan berrinbertuz, denboran zehar antolakuntza indartsu eta egonkorra lortze aldera.

Bestalde, inguruko kirol ihardueretan ere modu berezian hartzen dugu parte, txirringularitza frogak, Arrasate Saski Baloia, mendizaletasuna, igeriketa etb.

Herri komunikabideekin, ospakizun bereziekin, Korrika, Egunkaria Eguna eta antzekoekin ere lankidetzan dihardugu.

Eskualdeko herri eta auzotako jai eta ospakizun ugariari ere geure laguntza eskaintzen diegu.

Gure ustez, edozein bezero ibilgailu zein zerbitzuak erosteko orduan kontutan edukitze-ko moduko faktorea da hau.

## Zeintzuk dira TALLERES OLAREN hurrengo helburuak?

Gaur egun, gure eskualde honetan ibilgailuen merkatuan liderra da OPEL, %22,60ko sarbide-kuotarekin; gure antolakuntzak eta markak Deba Garaiko erabiltzaileen artean sortzen duen konfindatza maila adierazten du horrek gure ustez.

Gure bezeroen konfidantza zaintzen jarraitzea da, beraz gure



helburua, merkatuan lider izaten jarraitzeko aukera emango digu eta.

## Nola ikusten duzue sektorearen etorkizuna?

Gaur egun guztiongan nagusitu den ezkortasuna kontutan izanda ere, 10 urteko epean merkatuaren hazkundeko espektatiba errealak daude. Gipuzkoako ibilgailuen parkeko kuota, 100 bizilagun bakoitzeko 28 ibilgailukoa dela kalkulatzen da, Espainiakoa 100 bizilaguneko 32 ibilgailutan, Alemaniakoa 48koa 100 bizilaguneko eta EEBetako 54koa da bizilagun kopuru beraz.

Zifrek bakarrik ere adierazten digute hazkunderako aukera errealak. Hala ere, gaur egun banatzaileok ditugun balditzek ere aldaketa handiak izan behar dituzte; badira marka batzuk gaur egun eskualdean inplantazio errealik ez dutenak, produktu guztien komertzializazioko egituretan aldaketa handiak bizi ditugu, auto gidariekin euren ibilgailuari buruz duten ideia asko aldatu da eta ildo beretik jarraituko du, autoak sortzen dituen arazoak hor dauden arren, ez dago alternatiba errealik. Beste argumentu asko egon daitezke lehen adierazitako ideia indartzen dutenak.

Gure erronka lehen aipatutako bidetik jarraitzea da: espezializazioa, profesionaltasuna, egonkortasunaren bidetik, beti ere sortuz doazen aldaketei arreta handia jarri horietara egokitzeko.





Gatzagan,  
erdi erdian...  
**ZUHAITZ  
JATETXEA**



**ARAMAIO  
okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46


**VE ECUADOR**

**Bidaiak**

Kontzeiño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Iragarritako emigrazioa

**G**ure herri txikien despege eta geroagoko goraldi industrialak kokatzeko, minerala eta energia hidraulikoa oinarritzkoak ziren eta transformazioa eta energia iturriak bata

bestearen ondoan bereiztu ezinik zeudeneko urrutiko garaietara egin beharra dago. Gure erreka bazterretako burdinoletan armak eta tresnak egiten ziren, eta industriako arteetan lantzen ziren gure lehen profesional trebatuak, geroago industria artikulatuagoak sortzeko oinarriak jarriko zituztenak.

Gure produktu industrialak Espainiako beste eskualde batzuen aurretik doaz, meseta eta hegoaldearekiko, adibidez, nekazaritzako lehenaldiari lotuta daude horiek oraindik eta. Euskal Herria, XIX. mendearen hasieran pertsonako errentan azkenetakoa zena, lehen postuetara pasa zen XX. mendearen lehen hamarkadetan, Espainiako Gerra Zibilean zehar eutsi, baina 60ko hamarkadatik aurrera gainbeheran hasi zen.


Komunitate lokal txikien arrakastá industrialaren zergatia, denbora batez energia eta mineralen gune txikien abantailak aprobetxatzean bilatu behar da, geroago baperezko makinak eta elektraindarrak horiek baztertu egin bazituen ere. Energia iturri berriek, zentralak eta lantegiak bereizteko aukera eman zuten, eta horrela, enpresa industrial handiaren garapena hasi zen, espazio, demografia, prestakuntza profesional eta azpiegitura aldetik baldintzarik logikoak betetzen dituen tokian kokatzea bilatuz. Txikiaren abantailak amaitu egin ziren, eta gure herriek, lantegi talde handiak kokatzeko desegokiak direnez, dituzten mugak ezagutu ziren.

Hala ere, ezarritakoak aurrera egin zuen inertziaz, bultzatzaile eta jabeak bertakoak zirelako, baina ezin izan zien eutsi merkatuko iraultza, teknologia eta komunikazioen, hitz baten, konpetitibitatearen ondorioei, eta horregatik herri hauek galdu egin zuten zabalkunde industrial handi batetarako etorkizuneko interesa.

Gure herrien enfoke industrial berriak errealitate berri bat asumitu behar du eta espezializazioa eta enpresen arteko kolaborazioa posible egingo duten estrategiak diseinatu, indibidualismo tipikoa apurtuz.

Punta puntakoak ziren gure industriak "itzulerarik gabeko koman" sartu dira eta industria hornitzaile txikien tiragile eta garatzaile eginkizuna bete zuten industria mota hau ez dute gaur egun beste berri batzuk ordezkatzeko, izan ere, ez bertako indar enpresariak berriak sortzen dute, ez gure egoera politiko tirakorrenatik atzerriko enpresarik dator.

Oso urte gutxiren buruan oinarritzko enpresa-bururik gabe geratu gara, horiek izan baitzitezkeen garapen



teknologikoaren katalizatzaile eta I+Dko tasa altuari eusteko gauza izan zitezkeen bakarrak.

Gainera, gure lehenaldi arrakastatsu hori gehiago oinarritu izan da intuizio eta esperimintuzko industrian, oinarri teorikoaren gainean finkatua baino, eta teknologia berriek oinarri teoriko handiaren beharra izaten dute. Eta hori lortzeko ezinbestekoa da heziketako sare egokia eta alperrigalduta hor geratzen den potentzial hori aprobetxatzeko gai diren enpresak, edo emigratzea beste irtenbiderik ez dago.

Hitz gutxitan esanda, sare industrialaren galerarako joera geldiezina aldatzera kondenaturik gaude; industria bat ixten bada, gurea den zerbait galtzen da, eta etorkizunerako industrien kokagune egoki izateko ezaugarriak betetzen ez dituzten herri hauek, ez dute bertako ekimendunei, sustraiak bertan dituzten eta euren herria maite dutenei eustea beste irtenbiderik. Dagoenari ahalik eta laguntzarik handiena eman, pizgarriak eman eta lagunduz, eta ez jasan ezin diren hirigintzako karga handiekin zigortu, babes handiagoko eskualdeetara alde egin dezaten arriskuaz.

Klase profesionalik prestatuena, etorkizuneko gatza eta piparra izan behar lukeena, alde egiten, emigratzen ari da. Gure unibertsitateetaren batetik irteerako jendearen portzentaia garrantzitsu bat kanpora joan da lanera, eta denbora gutxi barru mailarik bajuenak ere iragarritako emigrazioaren karrera dramatikoan sartuko dira. Izan ere, filma parodiaturik,

**postariak ez du birritan dei egiten.**

JESUS LARRAÑAĞA

(Erredakzioan itzulia)

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publikatzailea:** Kepa Oñden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketaria:** Golo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS  
paper ekologikoan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Beñardo



**GORKA**  
**ILEPAINDEGIA**  
 Ferrerías, 35  
 Tfnoa: 76 08 14 ARRASATE

**Memesa**  
**79 42 22**



**ITURRIOTZ**  
**taberna**  
**Girorik**  
**jatorrena!**  
 Tfnoa: 79 16 04

**I**  
**R**  
**T**  
**A**  
**B**  
**E**  
**R**  
**N**  
**A**  
**T**  
**I**

Ferrerías kalea  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 56 11

•••••  
**ARRASATE**  
**Presseko**  
**zuzendariari**  
**zuzendua**

**8** mailako etikakoikas-leak gara. Deba Garaiko Udal Elkartearen egon ondoren, birziklapenerako erabiltzen diren kontenedoreei buruz informazioa jaso genuen eta herriari aurkeztu nahian gatozkizu.

1) Nork izan zuen kontenedorea jartzeko ideia? noiz? Mankomunitateak pentsatu zuen orain dela urtebete.

2) Nork diseinatu zuen? Gasteizko etxe batek.

3) Diru asko inbertitu al da proiektu honetan?

Bai, diru dexente inbertitu da.

4) Zein kanpaina pentsatu duzue jendea animatzeko?

Egunkarian ipintzea pentsatu dugu.

5) Zein egunetan ustutzen da kontenedorea?

Orain arte edozein egunetan, eta aurrerantzean, astelehen eta ostegunetan.

6) Zenbat paper jaso da Deba Garaian?

60.000 kilo orain arte.

7) Paperak nora eramaten dira erreziklatzeko?

Papertegietara.

8) Zertako erabiltzen da erreziklatutak papera?

Hainbat gauzatarako erabiltzen da.

9) Uste zena baino paper gehiago jaso da?

Espero genuena jasotzen ari gara.

Espero dugu hau ARRASATE PRESSEN agertzea, eskerrik asko zuen laguntza eta

arretagatik. Besterik gabe agurtzen zaituztegu:

**S.F. IKASTOLAKO**  
**8. AKO ETIKAKO IKASLEAK**

•••••  
**Biteri egoitza**  
**dela eta**

**E**skutitz hau aurreko astean "Eskola Politeknikora ikastera etorritakoak" erreportaia irakurri duten guztiei zabaldu nahi diet, eta baita zuri ere, Beñardo.

Erreportaia horretan bi hankasartze nabari daude eta argitu beharra dauzkat.

Alde batetik, erresidentzia ez da pisu bat baino merkeago ateratzen (nik ez dut kasu bat ere ezagutzen). Gure kasuan hilero 35.000 PTA ordaintzen ditugu lau lagun artean, eta janarian berriz 2.000 PTA joaten zaizkigu astero. Kalkulatuz, hilero 17.000 PTA irteten da gehienez, egoitza berriz 25.000 PTA. Diferentzia ederra, ezta!

Bestalde monitorea karkeratzeko orduan ikasleek ez dute zerikusirik eta hemen ezin dut azaldu ziurtasunez noren erabakia den.

Azkenik, eta bukatzeko, "Egoitza, hotel txikia" izenburua nire ustez ez da batere aproposa, ez du errealitatearekin bat egiten.

Agurtzeko zorianak eman ARRASATE PRESSEN lan egiten duzuen guztioi zuen lanagatik, eta erreportaia honetan parte hartu dutenei eskertuko nieke hurrengo baten hobeto informaturik egotea.

**FELIX EZKURRA, ESKOLA**  
**POLITEKNIKOKO IKASLEA**

•••••  
**Arrasateko**  
**herriari**  
**eskerronez**

**B**osnia-Herzegobinari laguntzeko janariak eta dirua biltzeko kanpaina bukaturik, Arrasateko SOS Balkanes taldeak eskerrak eman nahi dizkio Arrasateko herriari eskaini duen laguntzarengatik eta kanpaina-amaierako balantzearen berri eman aldeberean.

Gabonak inguruan hiru astez janariak batzeko egin zen kanpaina 5.000 kilo inguru batu ziren janaritan.

Bestalde, bi kontu korronte zenbaki ere ireki ziren, bata Euskadiko Kutxan eta Gipuzkoako Kutxan bestea, eta guztira 1.154.017 PTA batu ziren.

Batutako diruarekin janariaren garraioa ordaindu da, 300.000 PTA, eta gainerakoa SOS Balkanesek Spliten duen bulegoan entregatu, aurrera eramaten ari diren giza-laguntzako proiektu ezberdinetan laguntzeko.

Splitetik otsailaren 19ko dataz bidali diguten faxaren bidez, janariz betetako kamioia iritsi dela jakin ahal izan dugu eta janariok Mostarreko Jaski Dom izeneko errefuxiatu egoitzan banatu direla.

Mila esker Arrasateko herriari.

**ARRASATEKO**  
**SOS BALKANES**

**F**  
**A**  
**N**  
**C**  
**Y**

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**Basabe**  
**jatetxea**

Menu eta afariak  
 Boda eta banketeak  
 Industrialdea  
**ARETXABALET**  
 Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94



# Zer ikasi nahi duzu datorren urtean?



**Gustavo Garcia**  
**UBIko ikaslea (17 urte)**

Ez dakit, telekomunikazioa ikastea gustatuko litzaidake. Seguruenik Bilbora joango naiz, Espainia osoan lau tokitan bakarrik dago hori ikasteko aukera, eta Bilbo da hurbilena.



**Amaia Sanchez**  
**UBIko ikaslea (17 urte)**

Zientzietatik joango naiz. Dietetika edo Farmazia egiteko asmoa dut. Ez dakit, enfermeria ere gustatzen zait.



**Ibai Urzelai**  
**UBIko ikaslea (17 urte)**

Teknikoa den zerbait ikasiko dut. Marrazketa, dibujoak egitea asko gustatzen zait. Baina seguruenik ingeneritza egingo dut, herrian bertan geratzeagatik, etxetik hurbil.



**Ana Fernandez**  
**UBIko ikaslea (17 urte)**

Nik zientzietaako zerbait ikasiko dut, hori ziur. Biologia eta Matematikak gustatzen zaizkit.




**Elisabet Lopez de Vergara**  
**UBIko ikaslea (17 urte)**

Zientzietatik nabil eta oraindik ez dut ezer pentsatuta. Fisioterapia, medikuntza eta holako karrerak gustatzen zaizkit.



**Richar Egidon**  
**UBIko ikaslea (19 urte)**

Seguruenik informatika ikasiko dut. Beti gustatu izan zait eta uste dut Donostian ikasiko dudala.



**Arkaitz Iturrioz**  
**UBIko ikaslea (17 urte)**

Arkitektura edo informatika ikastea gustatuko litzaidake. Hala ere, oraindik ez da oso gauza segurua.



**Karmele Ajuria**  
**UBIko ikaslea (18 urte)**

Beti gustatu izan zaizkit zientziak. Enfermeria, dietetika edo holako zerbait ikasiko dudala uste dut.



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
Iaruzko artikulua

Iturrioz, 4 Tfnoa 79 14 84

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

**TXITXINPE**

**BEREZITASUNAK**

Kafea, ardoak,  
urdaitegia, fruitu  
lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
Tfnoa: 79 67 76  
ARRASATE



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Iguaiatorioa ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 71 44 52  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak ..... 45 87 44

**Udalzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubilagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterongo liburutegia**  
 Monteron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 26**  
 Egunez: Ruiz, Maala.  
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.

**Larunbata 27**  
 Egunez: Morales, San Andres.  
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

**Igandea 28**  
 Egunez: Azkoaga, Ferrerías.  
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

**Astelehena 1**  
 Egunez: Español, Iturriotz.  
 Gaeuz: Estella, Mabiategi.

**Asteartea 2**  
 Egunez: Corcuera, Musakola.  
 Gaeuz: Corcuera, Musakola.

**Asteazkena 3**  
 Egunez: Irizar, Erguin.  
 Gaeuz: Irizar, Erguin.

**Osteguna 4**  
 Egunez: Amezua, Santa Marina.  
 Gaeuz: Amezua, Santa Marina.

**12 OSTIRALA**

**ZINEA**


“El hombre de California” (7,10)

**ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN TOPAKETAK**

VI. eskola arteko abesbatzen topaketetan izena emateko azken eguna. San Frantzisko Xabier ikastolan. Topaketak: Apirilaren 3an.

**ASTE KULTURALARI AMAIERA ERGUIN ESKOLAN**

Larunbatean amaiera emango zaio Erguineko eskolan astean zehar burutu den aste kulturalari. Horretarako goizeko 9etan hasiko diren hainbat ekintza antolatu dira. Ordu horretan kirol lehiaketa finalak izango dira, 10.30etan trikitixa saioa eta 11etan haur jaialdia. Horretaz gain, goizean zehar haurren lanen erakusketa zabalik egongo da eta irratizaleak, txapak, gaztelu puzkarriak eta zangoluzek ere bertan izango dira.



**MANIFESTALDIA GAROÑAREN KONTRA**

Larunbatean arratsaldeko 6etan Gasteizko Virgen Blanca enparantzan egingo den Garoñaren kontrako manifestaldira joateko deia luzatu du Deba Garaiko Eguzkik. “Garoña, noiz arte?” lemapean, gure osasuna, gure seme-alabena eta Euskal Herriaren subirotasuna Garoñako zentral nuklearrarekin bat ez datozela bat azaltzen dute.

**13 LARUNBATA**

**ZINEA**

“Alerta máxima” (5,7.30,10)

**MANIFESTALDIA: GAROÑA-REN KONTRA**

Eguzkik, Garoña Zentral Nuklearraren aurkako manifestaldira joateko deialdia. Gasteizko Virgen Blanca enparantzan. Arratsaldeko 6etan.

**KULTUR ASTEAREN AMAIERA**

Kirol lehiaketen azkenak, trikitixa saioak, haur jaialdia, haurren lanen erakusketa... Erguineko Eskolan. Goizeko 9etatik aurrera.

**ZUHAITZ EGUNA**

Zuhaitz eguna. OHoko 6. mailakoek zuhaitzen landaketa. Irteera: Goizeko 9.30etan Arrasateko Herriko Plazatik. 10etan landaketaren hasiera Garagartzatik Atxabalpera bitartean.

**ZUHAITZ EGUNA**

**Larunbatean zuhaitz eguna burutuko da Arrasate. Urtero bezala OHoko 6. mailako ikasleek zuhaitzen landaketa egingo dute goizean zehar. Goizeko 9.30etan Arrasateetik irtengo dira Garagartzarantz eta 10etatik aurrera 60-80 zuhaitz landatuko dituzte. Goizean zehar trikitilariak ere bertan izango dira eta landaketa bukatu ondoren Garagartzako Auzo Etxean bokatak banatuko dira partaide guztientzat.**

**14 IGANDEA**

**ZINEA**

“Alerta máxima”(5,7.30,10)

**MENDI IRTEERA**

Aratz-era mendi irteera. Irteera: goizeko 8.30etan Partenoitik. Murruxiko Mendizale Elkar-teak antolatuta.



**GUTXITU FISIKOENTZAKO BIDAI PROGRAMA**

Beste urteetan bezala, Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak bidai programa zabal bat sortu du aurtengorako. Edozein minusbaliotasun fisiko, organiko edo sensorial mota dela eta, bereziki oporrik goza ezin izango luketen pertsonentzat zuzentzen dira bidai hauek. 16 eta 65 urte bitartekoek eman dezakete izena. Eskabideak martxoaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dira Donostiako Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzailean.



**15 ASTELEHENA****ZINEA**

"Alerta máxima" (7,9.30)

**HAUR TXIKIEN IRAKASLEEN-TZAKO HITZALDIA**

Pello Añorga eta Nerea Balzola hitzaldia: "Haur txikienezako liburuak: ereduak eta kritika". Arratsaldeko 6etan. Monterronen.

**HAUR TXIKIENTZAKO LIBURUEN ERAKUSKETA**

Haur txikienezako liburuen erakusketaren lehen eguna. 18a bitartean Monterronen.

**YUGOSLAVIARI BURUZKO HITZALDIA**

"Yugoslavia ohiaren egungo egoera: ulertzeko modua" hitzaldia. Hizlariak: Jon Umerez, Antton Etxeberria eta Nuria Agirre. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

**ODOL ATERALDIAK**

**Arrasateko Anbulategian datorren martxoaren 22, 23, 24, 29, 30 eta 31ean odol ateraldiak izango dira. Odola emateko interesaduzuenok arratsaldeko 4.30etatik 8etara bitartean joan zaitzekete bertara. Odola eman ahal izateko 18 urtetik 65ra bitartean eduki behar dira eta azken jatorragarrantzitsuenetik bi ordu t'erdi igaro izana beharrezkoa da.**

**16 ASTEARTEA****ZINEA**

Ikusleen eguna. (300 PTA)  
"Alerta máxima" (7,9.30)

**HITZALDIA**

Asun Alzola ilustratzailearen hitzaldia: "El libro como transmisor y receptor de afectos". Arratsaldeko 6etan. Monterronen.

**TENIS IKASTAROAK**

Haurrentzako eta helduentzako tenis ikastaroak antolatuta dira Musakolako Kiroldegian. Lehen ikastaroan tenisean lehen pausua ematen erakutsiko da eta bigarrenaren trebetasuna hobetzen. Plaza mugatuak direnez, izena lehen bait lehen ematea gomendatzen da. Haurrek 1.200 PTA eta helduek 2.500 PTA ordaindu beharko dute.

**17 ASTEAZKENA****ZINEA**

"Porqué le llaman amor cuando quieren decir sexo?" (7,10)

**IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA**

San Jose zubian Panticosara eta Formigalera joateko izenak emateko azken eguna. Arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara Formigalera joateko eta 7.30etatik 8.30etara Panticosara joateko. Besai-deren egoitzan.

**BATZAR NAGUSIA**

San Frantzisko Xabier ikastolaren Ezohizko Batzar Nagusia. Gazteluondoko batzar aretoan. Arratsaldeko 6etan.

**HAUR TXIKIEN GURASOENTZAKO EKITALDIA**

Pello Añorga eta Nerea Alzola hitzaldia: "0-7 urte bitarteko haur txikiek zer duten irakurtzeko. Liburuak aukeratzeko irizpideak". Arratsaldeko 6etan. Monterronen.

**IKASTOLAREN BATZAR NAGUSIA**

San Frantzisko Xabier ikastolaren batzar nagusia burutuko da datorren asteazkenean. Ikastolak Udalarekin egindako Hitzarmena aztertuko da eta bidezkoa bada onartu egingo da. Horren ondorioz Ikastolak ondare osoa Udalarari eman beharra ere aztertuko da. Gaiak duen garrantziagatik, hutsik ez egitea eskatzen du Ikastolak.

**18 OSTEGUNA****ZINEA**

"Porqué le llaman amor cuando quieren decir sexo?" (5,7.30,10)

**HAUR LIBURUTEGIKO ANIMAZIO ASTEA**

Monterron Kultur Etxean haur liburutegiko animazio astea burutuko da. Astelehenetik ostegunera bitartean haur txikiei zuzendutako liburu erakusketak egongo da eta hiru hitzaldi ere izango dira guraso eta irakasleei zuzenduta, beti ere haurren liburuak aztertzea helburu izanik, Pello Añorga, Nerea Alzola eta Asun Balzola izango dira hizlari.

**SAN JOSE ZUBIRAKO IRTEERAK**

Datorren martxoaren 19an irten eta 21ean bueltatzeko, bi irteera antolatuta ditu Besaidek: Panticosara eta Formigalera. Panticosara joan nahi dutenek ordaindu beharreko kuota hauek izango dira: bazkideak 2.800 PTA, ez bazkideak 3.200 PTA, bazkide gazteek 2.000 PTA eta ez bazkide gazteek 2.400 PTA. Prezioan bidaia bakarrik sartuko da eta goizeko 8etan Garibaitik izango da irteera. Izena emateko astelehen, astearte eta asteazkenean egin dezakezue Besaideko egoitzan, arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara. Bestalde, Formigalera eskiatzera joan nahi dutenek, 15.000 PTA bazkideak, 15.500 PTA arrasatearrek eta gainontzekoek 16.500 PTA ordaindu beharko dute. Irteera goizeko 5etan izango da, eta izena ematea astelehen, astearte eta asteazkenean arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara.



“Hainbat sektorek, Eliza Katolikokoek batez ere, HIESarena gai moral bezala hartu du, eta ez da hori. Logika kontua da. Nik ez diot sexuharremanak izateari utzi behar, askotan esan izan dut, eta nire laguna ez kutsatzearen preserbatiboak erabiliko ditut, hori besterik ez. (...) Oraintxe bertan bi antibiriditugu, AZT eta DDI, orain hamabi urte arazoa sortu zenean pentsaezina zena. Askotan pentsatzen dut niretzat beranduegi izango dela, baina aurrerapen guzti hauek, zalantzarik gabe, afektatuei esperantzarako ate bat irtekitzen diete”.

**Jon Salaberri** 1993-3-4

**EL MUNDO**  
PAIS VASCO

“Hitzez asko gara iraultzaileak, baina benetan bizkarra jarri behar denean ihes egiten dugunak, eta horren ondorioz, presoen senideen gain erortzen dira zamarik handienak. Geure burua jarrera hauen aldeko jotzen dugunok, egiten dugun baino gehixeago egin dezakegula esango nuke; gure oporrei, gure afarietara, gure txikiteoari zertxobait kenduz, asko arin dezakegu senideen zama ekonomikoa behintzat eta, sentimenduzkoa arintzeko ere, ez da jarrera txarra beraien sufrimenduetan lagun gaituztela ikustea”.

**Mattin Amundarain**

## Senideon Ahotsa

“Mendian asko sufritzen da; hala ere, egundoko atseginak hartzen dituzu eta berriro mendira joateko gogoia edukitzen dut. Niretzako mendia bizioa da. (...) Aspergarria da mendi garrantzitsu batera joan behar duzun bakoitzean komunikabideetan agertzea, batez ere telebistan. Hala ere, hori da modu bakarra eta gu joku horri jarraitu beharrean gaude”.

**Naiara Ezeiza** 1993-3-10

**Egunkaria**

## Zergatik Kultur Astea Erguin eskolan?


**O**rain bi urte, ikastetxearen sorreraren hamargarren urteurrena burutu genuen eta ospakizunen artean Kultur Astea antolatu genuen. Orduan, antolatze lanei ekin aurretik eztabaida luzea izan genuen, uste genuen zerbait egitea merezi zuela eta eztabaida sakonena egiteko moduan izan genuen. Garai hartan modu batera egitea pentsatu genuen, erronka handia zen guretzat, baina uste dut arrakastatsua izan zela lehen Kultur Aste hura, batez ere bi arazorengatik: bata, antolatutako ekintza guztietan parte hartu zuen jendetzarengatik; bestea, berriz, Kultur Asteak berak izan zuen oihartzunarengatik. Uste dut lehen Kultur Aste harekin, nolabait ikastetxe barruan egiten ari ginen lana aideratzea lortu genuela, antolatu genituen ekintzak, neurri batean barruko lanaren islada izan zirela, Erguin auzoan, batez ere.



**Xabier Agirre**  
Erguin eskolako zuzendaria

Lehen Kultur Asteari jarraipena ematea inportantea zela erabaki genuen, eta horrela azken bi urteotan berriz antolatu izan dugu. Marketing aldetik, interesgarria da horrelako ekintza bat, eskolan egiten duguna kaleratzeko aukera ematen digulako. Gainera, mugimendua adierazten duen ekintza da, ez gaudela ez hilda eta ezta lotan ere.

Aurreko urteetan, Kultur Astea, pautu batzuk markatu ditugu; lehenengoa erreformaren inguruan landu genuen, bigarrena euskararen murgiltze planaren inguruan eta aurtengo sexu-heziketa eta umeen garapenaz ari gara. Ez errepikatzea inportantea da, eta baita aurrekontuarena ere, iaz 150.000 PTA kosta zitzaigun eta hori diru asko da.



## URONDO

### elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



**Emakumearen Eguneko ekintzak**

Emakumearen Egunaren inguruan makina bat ekintza burutu ziren joan den asteburuan: Emakumeen Asanbladak antolatutako hitzaldia ostegunean Monterronen, "Besteak zaintzea, eginbeharra ala aukera"; larunbatean, berriz, Gaztetxean jai-giroko makina bat ekintza, eta astelehenean Egizan eta Emakumeen Asanbladak antolatuta, manifestaldi jendetsua burutu zen "Bosnia... Euskadi... aski da!" lemapean.

**Kontzertua Gaztetxean**

Zaldibarko Cuatro Clavos eta Mutrikuko KTI taldeen kontzertua burutu zen Gaztetxean. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, jende gutxi hurbildu zen bi talde hauen kontzertua entzutera, 40ren bat sarrera saldu ziren eta. Dena dela, sarrera gabeko batzuk ere ba ei ziren.

**MCCKo kooperatiba bat erre**

Metalezko altzariak egiten dituen Legorretako Eredu kooperatiban sute handia izan zen pasa den igandean. Lantegiko arduradun batek zioenez, ez da ezagutzen zerk eragin zuen sutea eta oraingoz ez dago jakiterik galerak zenbatekoak izan diren, baina adierazgarria izan daiteke esatea stock-ean



**Txomin Iturberen omenezko jaialdia**

Txomin Iturbe zenaren heriotzeko seigarren urteurreneko jaialdi-mitina burutu zen larunbatean Musakolako kiroldegian. Jaialdi-mitinean 1.000 lagun inguru bildu ziren, Jone Goirizelaia HBko mahai nazionaleko kidearen hitzak entzun eta jai-giroko ekintzetan parte hartzeko. Txalapartariak, Anje Duhalde eta Amuriza kantari, Aitor Sarasua eta Rikardo Gonzalez de Durana bertsoan, trikitilarien emanaldia eta Guk taldearen saioa bizi ahal izan zuten gauerdirate Musakolan bildutakoek.

zegoen guztia erre zela, baita lantegiaren zati bat eta makina gehienak hondatu egin zirela. Zuzendaritzaren ardura handiena hartutako konpromezuak betetzea zen eta horretarako produkzio zentru berrien bila dabiltzala adierazi zuten. Urriaren bukaerarako lantegia berreraikitzea espero da.

**Arazoak Uribesalgo lantegian**

Utillajes Uribesalgo enpresan konpenezin daude langile eta zuzendaritzaren artean. Sindikatuek diotenaren arabera, zuzendaritzak planteatutako

erregulazio proposamenak ez du inongo zentzurik, datu ekonomikoek ez baitute horrelako neurriak hartzera behartzen. Horren aurrean, langile guztiek, ELA eta LAB sindikatuek deituta, entzerrona burutu zuten ostiraletik larunbatera eta atzo eta gaur greba orokorra egiteko asmoa azaldu zuten.

**Argazki erakusketa Monterronen**

Igandean itxiko da ihauterietako argazki-lehiaketako argazki onenez osatuta, Monterronen ikusgai egon den erakusketa. ASAk antolatutako

argazki lehiaketa honetan 56 pertsonak hartu zuten parte, baina arrazoi desberdinak medio, bakarrik 41 parte hartzaileen lanak onartu ziren.

**Elkarteen arteko mus txapelketa**

SUDC-ek urtero antolatzen du Elkarteen arteko Mus Txapelketa eta aurten 13 elkarte animatu dira parte hartzea.

Lehen partidak joan den asteburuan jokatu ziren, irabazleak aurretik: Udalpe - Uribarri, Hamaika Gazte - Bidegain, Egiptea - Gentil Ola, Torrepe-Irantsube eta Leintze - Santamaina. Bueltako partidak asteburu honetan.

**JAIOTZAK**


- Mikel Lara Malvar. Otsailaren 24ean.
- Andoni Zabalo Lazkano. 27an.
- Garazi Perez de Arenaza Lakuntza. Martxoaren 1ean.
- Lara Moto Valor, 2an.
- Andoni Aginalde Errasti, 6an.
- Xabier Gorroñoigoitia Beitia, 7an.

**EZKONTZAK**

- Eduardo Jesus Fernandez Galar & M<sup>a</sup> del Carmen Sebastian San Miguel. Martxoaren 6an. Elizaz.

**HILDAKOAK**

- Demetria Azkoaga Gordoia. Martxoaren 5ean. 88 urte.
- Alvaro Hurtado Hugarte, 7an. 90 urte.
- M<sup>a</sup> Pilar Gerrickagoitia Rodriguez, 7an. 55 urte.
- Felisa Arkarazo Gordoia, 8an. 88 urte.
- Amparo Garcia Muñoz, 8an. 81 urte.



**ERAIKUNTZAK**

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

**MARKO-JARTZEAK**  
Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84





ROSA URRETA \*

## Euskal Eskola publiko berria dela eta

**Ez**, aprobatu berria den eskola publikoaren legeak ez ditu Euskal eskola publiko berriak bete beharko dituen gutxieneko baldintzak ziurtatzen! Horrela izanik, ezin dugu lege horren menpe utzi Euskal Herriaren geroa. Lege hori onartzen ez dugun neurrian, egin dutenei gure haserrea erakustea besterik ez al dago?

Bestalde, badirudi hainbeste aldarrikatzen ari garen ezetz horrek, gaur egungo ikastola eredu legitimizatzen duela Euskal eskola bakar bezala... eta ez da horrela! Gaur egungo Euskal Herrian, nahi ta nahiez bi eskola herriko dauzkagu, hots "herriko eskolak" eta "ikastolak", eta lehen bait lehen bien arteko elkarlana eta konfluentzia bultzatu beharrean gaude. Bakoitza, ba, gauden tokitik, hori lortzeko ahaleginetan murgildu beharko gara. Ala, gobernutik lege

hori aldatuko dutenaren zai geldituko gara?

Atxabaltan, gaur egun, bi eskola herriko horien adibidea aukeran dugu; Bai bata bai bestea, "herrikoitasun" eta "euskaltasun" horiek neurri handi batean betetzen dituztenak; Batak beharbada alor batzutan, besteak baino hobeto... eta alderantziz.

Guk, "herriko eskolako" irakasle garenok, badakigu legea kontra izanda ere, gurasoen ahalegina, Udalaren konpromezua eta irakasle-

.....

*"Herriko eskola" eta "Ikastolen" arteko elkarlana eta konfluentzia bultzatu beharrean gaude"*

goaren lana medio direnean lortu daitezkeen eskaintzak garrantzitsuak izaten direla; Atxabaltan begibistan daude.

Gehiago zehaztearren, Udaleskolaurreko esperientzia azalduko dugu, non, "eskolaurre publikoa" zena eta "ikastola" zena elkarlanean jarri ziren orain dela hamaika urte, nolabaiteko konfluentzia, erreala bihurtuz; gaur egun, udaleskolaurreko irakasleoa %100 euskalduna eta iraukorra da; D eta murgiltze ereduari ari da lanean; herriko sektore, komunitate ezberdin guztiak integratzeko gai da; dohaina eta momentu oro, heziketa eta irakaskuntza alorreko berrikuntzak aztertu eta bereganatzen ditu.

Ez da Atxabaltan dugun adibide bakarra, Kurtzeberri "eskola publikoa" egoera berean aurkitzen da, irakasleoa %99 euskalduna eta %75a iraukorra denaren salbuespenarekin. Eta ez da Atxabaltan salbuespen bakarra, ez; Udaltzeara, gurasoak eta ikasleak konprometitu diren herri guztietan, berdin gertatu da.

Orain, "Eskola Publikoaren legea txarra" denaren izenean, ezin ditugu suntsitu emandako urratsak. Gauzatu-tako esperientzia hauek arriskuan jarriko duten erabakirik ez onartzea izan behar du, hemendik aurrera atxabaltarron erreinbidikazioa; Batez ere herrian, honi buruz zeresana eta zeregian dutenen aurrean, eta, nola ez! gobernuaren aurrean ixildu gabe!

(\*) **KURTZEBERRI ESKOLAKO IRAKASLE TALDE BATEKO PARTAIDEA**

## USTEAK USTE

### MEDIOEN KONTROLAZ

**Galdera ederra bota zuen aurreko batean Arrasate Press eta ATB ikustera etorri zen batek: Eta politikoei nahi dute ATB eta ARRASATE PRESS euren menpe edukitzea? Ez nekiela erantzun nion, baina ni neu politikoa izanez gero, denbora apur bat gastatuko nukeela herriko etxe gehienetan sartzen diren bi komunikabideak kontrolatzen.**

**Hemen barruan nagoenetik, ia badira hiru urte, ez dut sekula partidu politiko baten aldetik egunero eta astean behin kaleratzen diren produktuak kontrolatzeko maniobrarik somatu. Akaso ahaleginak gertatu izan dira, ez nuke lepoa jokatuko, baina ni neu ez naiz enteratu.**

**Horrelako Estatu Kolperen bat gertatuko balitz, gaur egun ARRASATE PRESS eta ATBren objetibotasun santua, zalantzan jartzekoa noski, boterearen menpeko subjektibotasun bihurtuko litzateke, hau da: komunikabide publiko eta era berean ofizialen aurrean egongo ginateke. Erreflexioa luzeagoa da, tokia ez, ordea, beraz hortik aurrerakoak irakurleentzat.**

**BEÑARDO KORTABARRIA**

## BURGALES JATETXEA

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12  
ARETXABALETAKO**



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76





Xabier Larrañaga, ELA, Juan Ramon Garai, CCOO eta Patxi Arburua LAB.

## Egoera latzaren aurrean sindikatuak elkartuta

Ekonomiaren egoera larria dela eta, ELA, LAB eta CCOO sindikatuak sei puntuetan oinarritutako akordioa lortu dute Euskadi mailan, helburu jakin batzurekin: Berrindustrializaziorako mahaiaren sorrera, industri politika baten garapenaren lorpena, Enplegu eta Trebakuntzarako Euskal Institutuaren sorrera, Gizarte Segurantzaren transferentziaren esijentzia, Euskadi mailan enpleguaren aldeko negoziazio kolektiboak bultzatzea eta Lanbide Heziketa etengabea izatea lortzea.

Euskadiko egoeraren larritasunak, Deba Garaian ere badu islada: Erregulazio Expedienteak Mayc, Roneo, Uribesalgo, Transformados Metalicos edo Aranzabal bezalako enpresetan, lanpostu galera handia, kooperatibetako lanorduen murrizketa, behin behineko kontratuen galera eta aurrejubilazioak.... Gainera, hiru sindikatuen arabera, kontuan hartu behar da industriaren krisialdiaren ondorioz, zerbitzuen arloan azken urtean Gipuzkoan 9.222 lanpostu galdu direla. Azkenik, INEMeko datuak ere

aipagarriak dira, urtarrilean 3.028 langabetu Arrasateko bulegoan, gazteak eta emakumezkoak gehienak eta sindikatuen ustez "izena ematera joaten ez den jende asko dago, alferrik dela pentsatzen du eta".

### Mobilizazio egutegia

Jendea kontzientziarazteko, aipatutako hiru sindikatuak eta ESK-k Deba Garaian mobilizazio-egutegi bat antolatu dute: martxoaren 15etik 18ra, Deba Garaiko lantegi guztietako Enpresa Komite, Sekzio Sindikal eta Kontseilu Sozialen mobilizazioekiko elkartasuna eskatuko da. Martxoaren 26an, sinbolikoki, INEMen bulegoaren okupazioa egingo da, 11etatik 12etara. Oñatiko Udaltexean martxoaren 25ean, Arrasatekoan 26an eta Bergarakoan 29an mozioak aurkeztuko dira eta ordu-erdi aurretik enkartelada eta giza-kateak burutuko dira. Azkenik, apirilaren 24ean Bergara eta Arrasate artean martxa bat egingo da, goizeko 10.30etan Bergaratik abiatuta eta hona iritsitakoan bailada mailako manifestaldia egongo da.

### Kooperatiben Ihardunaldiak

Uztailean burutuko den Kooperatiben Kongresurako prestakuntzetan barruan, asteazken eta ostegun honetan ihardunaldiak burutu dira Korporazioaren egoitzan. Ondoko gai hauek aztertu eta eztabaidatu ziren: Kongresurako komisio iraunkorraren hautaketa, MCC Korporazioan infraczio eta zehapenen arautzea eta datozen urteetarako MCCren politika enpresariala.

### ARKO Batzar Orokorra

Martxoaren 30ean Arrasate Komunikabideak elkarteak urteko Batzar Orokorra burutuko du arratsaldeko 7etan Monterron Jauregiko aretoan. Bertan aztertuko diren gaien artean, aurreko aktaren onarpena, urteko ekintzen berri, egitasmoen azalpena eta Zuzendaritza Batzordeko partaide berrien aukeraketa egingo da.

### PNVk emendakinak

Azken Plenoan EUDEL-eko araudiari baiezkoko eman zion arren, EAJ-PNVk akordioari emendakinak aurkezteko asmoa adierazi du aste honetan ATBn egindako adierazpenetan. Emendakinak aurkezteko epea seguruenek datorren astean irekiko da eta hilabetekoa izango da.

**BIONA**


Zurgin Kantoi, 2  
Tfnoa: 79 20 04  
ARRASATE

**PAZI-OLA**

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94





2.479 lagun hurbildu ziren iaz Gazteen Informaziorako Udal Bulegora.

## Gazteen kontsulta gehienak iaz Hezkuntzari buruz

Gazteen Informaziorako Udal Bulegoan ateratako datuen arabera, iaz 2.479 kontsulta egin ziren aipatutako zerbitzuan, horietatik 1.343 emakumezkoenak (%54,18a) eta 1.134 gizonezkoenak (%45,74a).

Interes guñeei begirada bat emanez gero, kontsulta gehienak Hezkuntzari zegozkionak izan zirela aipatu behar, 709, egindako guztien %28,6a. Oporraldiari buruzko informazioa eskatzeko 680 gazte hurbildu ziren bulegora; ikasle-txartela, gazte-txartela edo besteren bat eskuratzeko, berriz, 445 lagun. Lanari buruzko informazioa eskatzuz

151 lagunek erabili zuten Gazteen Informaziorako Udal Bulegoa, gazte eta kultur elkarten aldetik 148 kontsulta egin ziren, lehiaketa edo kultur ekintzez informatzeko 134 kontsulta, Objekioko Bulegoko datuak kontatu barik, objeziolari buruzkoak 117, eta bestelakoak 95.

Aipatutako datuak esanguratsuak izanik ere, ezin daitezke gazteak gehien kezkatzen dituzten gaien isladatza hartu, kontuan izan behar baita Gazteentzako Informaziorako Udal Bulegoaren erabiltzaile gehienak ikasleak direla.

### Jaietarako aseguru

Udalak herriko eta auzoetako jaietarako Erantzukizun Zibileko poliza bat kontratatu du, 260.000 PTAKoa, sokamuturra eta etxafleroen arriskuagatik gehienbat.

### Udal Plenoa astelehenean

CCOO, LAB eta ESK sindikatuen eskariz, astelehenean arratsaldeko 7etan, UCCEMi buruzko mozio bat eztabaidatzeko, Udal Plenoa burutuko da.

### Ibai-Arteren asanblada

Ibai-Arte Elkartearen asanblada burutu da astean zehar eta bertan kritikarik handienak Udalak jaso ditu. Ibai-Artekoen ustez, Udala erakunde zergabiltzaile hutsa da, etorkizunerako inolako planik erakusten ez duen erakundea.

Udala alde batera, asanbladan urteko memoria irakurri zen eta orainarteko zuzendaritzaren berrakuraketa egin zen urte beterrako.



## BERTSO AFARI GAZTEA

- Non: **ALKARTU** elkartean
- Noiz: Martxoaren 19an gaueko 8.30etan
- Zeinentzat: 16 urtetik 30urte bitarteko gazteentzat
- Bertsolariak: **IGOR ELORTZA, UNAI ITURRIAGA** eta **IRATXE IBARRA**
- MENU APARTA!**
- Prezioa: 1000 PTA
- Txartelak salgai: Hire, Ekaitz tabernan eta AEDn

**ZATOZ EGUAKOTX APARTA PASETAN!**





Hileko Udal Plenora aurkeztu nahi da aurrekontuen borradorea.

## Panfletoak EAJ/ PNVren aurka

Atzo goizean kalean agertutako panfletoek txakurtzat jotzen zituzten, EAJ/PNVko zinegotziak, "Peixoto"ren auzian hartutako jarrerarengatik. Pape- rek ez zuten sinadurarik eta PNVk, gaia aztertuz, bilera berezia egiteko asmoa adierazi zuen.

## Deba Garaiko Gurutze Gorria

Otsailean guztira 70 pertsona trasladatu zituela, 1 inolako kalte barik, 49 arin zaurituta, 16 larri zaurituta eta 4 hildako.

Bestalde, bazkide- kanpaina bukatutzat eman dute San Prudentzioko Gurutze Gorrikoek, 239 bazkide berriekin 393 bazkide guztira.

# Egutegia betetzen bada, hileko azken plenora aurrekontuak

Ino Galparsoro Hazienda Batzordeburuak ezarritako epeak nahiko estuak direla adierazi arren, posible izango litzateke hile honetako plenorako prest egotea aurrekontuen borradorea. "Batzorde guztien eskariak jasota daude eta orain eztabaidatzen ari gara. Astero bi egunetan gutxienez, bi ordu eskaintzen dizkiogu gai honi; hala ere, uste dut larri samar ibiliko garela hile bukaerako plenora iristeko". Hirigintza eta Hezkuntza batzordeak izan dira azkenak eskariak aurkezteko orduan, likidazioan oraindik iazko hainbat gauza nondik nora joan zitezkeen erabaki

barik baitzeuden.

Gauzak eztabaidatzen ari direnez, oraingoz Hazienda Batzordeburuak, aurrekontuen edukari buruz ez zuen esateko gehiegirik. "Gauzarik aipagarrienak bi izango lirateke: bata, iaz markatutako ildo nagusitik ateratzen diren gauza berriak badirela eta horrek nolabait prozesua atzeratu egin duela; bestea, aurten diru-sarrerak seguruen txikiagoak izango direla, Diputazioak diru gutxiago emango baitu eta gainera inbertsionarako ez da dirulaguntzarik ziurtatuko. Kredituen bidetik joan edo ez erabaki behar".

### Gurutze Gorriaren zerbitzuak

Otsaila	Guzt.	Arrasate
Kirol-istripua	4	1
Lan-istripua	5	2
Oinezko istripua	6	2
Trafiko istripua	12	1
Premiazko gaisua	34	16
Zerbitzu bereziak	7	6

## HITZALDIA

### JUGOSLABIA OHIAREN EGUNGO EGOERA (ULERTZEKO MODUAN: Bideoa, diapositibak, retroproiektzioak...)



Emaleak:

**JON UMEREZ**

(Jugoslavian gida izandakoa eta EHUko irakaslea)

**ANTTON ETXEBARRIA**

(Sebastopoleko titiriteroen brigadista)

**NURIA AGIRRE**

(Eskoriatzako bosniar komunitatearen laguntzailea)

**Martxoaren 15a, ASTELEHENA. Monterronen Arratsaldeko 7etan**






## Txutxumutxuak



San Andres auzoan, gaur egun asmoz, hainbat ekintza euskararen erabilpena ez da antolatu dituzte astean. Esate askok nahi bestekoa, bertako baterako, dantza egiteaz bat eskolakoek nahi bestekoa ez euskara ikas daitekela behintzat. Gure hizkuntza demostratzen digu gazte talde ikasle zein gurasoei zabaltzeko honek.

**Maiteminduen eguna aspalditxo ospatu zen, baina Berrigarak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketan ez da irabazlerik iragarri oraindik. Jakin dugunez, 320 lagunek hartu dute parte eta horietatik 30 arrasatearrak dira, gainera. Ondo aztertu behar direla eta, datorren martxoaren 18a arte ez da argiratutuko politena, xamargarriena, irabazlea izango dena.**



**“Ikastola” aldizkariaren gure herrian. Nafarroako ikastolak hurbi-Atxari egindako letik ezagutu dituen elkarrizketa irakurtzeko gizon honen esperientzia eta bizimodua bera aukera izan dugu. Jaiotzez atxabaltarra ezagutzeko aukera ezin da, eta familiaz mondra hobea. Argazkian, goetarra denez, jende herritarrei agur egiten askok ezagutuko du diela dirudi.**

CAMPEONATO DE FUTBOL  
CLASIFICACION  
X CAMPEONATO DE FUTBOL  
"ESTELLA Y COMARCA"  
(después de la 19ª jornada)

Equipo	Puntos	Ju. G.	Ju. E.	Ju. P.	Goles
A. Estella	18	6	0	3	15-10
B. Comarca	15	5	0	4	12-10
C. ...	12	4	1	3	10-10
D. ...	9	3	2	3	10-10
E. ...	6	2	3	3	10-10
F. ...	3	1	4	3	10-10
G. ...	0	0	5	3	10-10

Bar BATKETAS  
PIZZERIA Y CERVECERIA '82  
Artículos de BROMAS  
Regalos  
Venta y alquiler de DISFRACES durante todo el año.  
atalaya

**Calle Mayor**  
Publicación quincenal de la zona de Estella

**ZUDAIRE**

Llegó la nieve a la Merindad

**NUEVO PEUGEOT 306**  
AUTOMOVILES MARCO

Estellako “Calle Mayor” aldizkariaren ale bat duzue hau. Gure irakurle batek ekarritakoa da eta “Begira, Arrasate Press baina erdaraz aurkitu dut” esan zigun. Izan ere, gu ere begira hasi gara eta sail batzutan erabilitako estiloa, letrak edo formatoa bera ere oso antzerakoak dira. Eredu ona ote gurea?

**UGARTE**  
Industri hornidurak  
Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412

**Onduline TXOMIN HERIZ**  
eraikuntzarako materialak  
Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
ARRASATE

**URALITA**

**TTUKUN**  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta  
Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62



**Mariela Barquerok**, 17 urteko arrasatearrak, Euskadi mailako Batxilergo sari berezia irabazi du. Euskadiko 21 ikasle sailkatu dira, lau Gipuzkoakoak eta sari honi esker, Europarako bidaia irabazi dute. Gainera, Espainia mailako azterketa egiteko aukera emango diote Marielari. Zorionak eta asko ikasi beste azterketa hori egiteko!



**Aurten, gazteek ere modu bereziz ospatu nahi izan dute emakumearen eguna. Pasa den larunbatean txalaparta eta trikitalarien aguntzarekin,**

**gazte asko jarri ziren mahai baten inguruan, gaurko neska gazteen arazoak komentatu eta, bide batez, egun ederra pasatzeko asmoz.**

## Txufxumufxuak

### IZEN PROPIOAK

● 1993ko Haratuzteetako argazki lehiaketako irabazleak honako hauek dira: multzo onena **Jose Luis Feo**, argazki onena **Juan Carlos Murillo**, bigarren multzo onena **Leire Olea** eta bigarren argazki onena **Roberto Mendi**.

● **Jon Andueza**, 27 urteko arrasatearra izan da Bilboko Udalak antolatu duen Gabriel Aresti ipuin lehiaketaren irabazlea. Aurretik ere Ondarroako Augustin Zubikarai, Donostia Hiria saria, Bergara Hiria saria eta bi aldiz Ricardo Arregi kazetaritza saria ere irabazi ditu. Jon ATBko arduraduna da gaur egun.

● **J.M. Amasene**, Fagor Elektronikako semieramaileen negoziozko zuzendari izendatu berri dute. **Begoña Aranzabal**, lan hori egiten zuena, berriz, Fagor Ederlaneko zuzendari komertziala izango da aurrerantzean.

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M**  
**A**  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburu, 24  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 70 39





*la merced*  
IKASTETXEA

**Kalitatezko irakaskuntza batetik hasiz,  
gure heziketa ekintzak, gizakia osotasunean hartzen du**

**1993-94 IKASTURTERAKO  
IZEN-EMATE EPEA IREKI DA**

**IKASTETXEAK ESKAINTZEN DU**

- Haur heziketa
- Lehen heziketa eta O.H.O.
- Heziketa 16 urtera artekoa izango da laster

**IRAKASKUNTZAN**

- Eredu euskaldunak

**ZERBITZUAK**

- Tutoretza eta orientazio prozesua bereziki zaindua
- Heziketa bereziko ikasgela
- Ingelesa 3. mailatik aurrera
- Jangela

**BESTE EKINTZA BATZUK**

- Lehen Hezkuntzarako Barnetegiak
- Antzerkiari arreta berezia
- Irteera kulturalak

**ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**

- Kirol eskola
- Zeramika eta dantza
- Abesbatza
- Marraskia eta pintura
- Gurasoei zuzendutako hitzaldiak
- Guraso eskola

**Informazio gehiago nahi baduzue, etor zaitezkete:**

**LA MERCED** Ikastetxera

J. L. Iñarra Pasealekua

**Tfnoak: 79 20 92 / 79 27 73**

ARRASATE



# Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



## Hutsek ez dute konponbide errazik

Elurrarenak ahaztuta, Zaldibarko Txapelketak berriro ere, bere mar-txa normalari eutsi zion joan den asteburuan. Bigarren fasea hasi besterik ez da egin, baina poliki poliki gauzak argituz doaz eta somatzen da dagoeneko zein izan daitekeen talde batzuren etorkizuna eta zein beste batzurena.

Izan ere, bigarren fase hau oso motza da. Taldeek zazpi partidu besterik ez dituzte jokatu, eta egindako okerrak konpontzeko ia ez da astirik izaten. Beraz, eguraldiaren gorabeheri jaramonik egin gabe, Zaldibarren partidu serioak ikusiko dira ondorengo ihardunaldietan.

**NUEVO  
taberna**

Bañez Dokforea, 15  
Tfnoa: 79 99 88  
ARRASATE



DEBA  
**GARAIA**

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia  
Tifnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta grastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

**SEGURASKI BAIETZ !**




a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARRASATE KIROLAK	2	2	0	0	11	1	4
ZULOAK	2	2	0	0	9	1	4
ARGI IBILI	2	2	0	0	13	3	4
NUOVO TABERNA	2	1	0	1	4	7	2
LOS DIMY	2	0	0	2	2	9	0
ARRASATE KRIST.	2	0	0	2	2	10	0
PEPELUS	1	0	0	1	2	7	0
TXOKO TABERNA	1	0	0	1	0	5	0
GUZTIRA	14	7	0	7	43	43	14

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
DIEGO ANTONIO	2	2	0	0	13	6	4
ZIZTI-ZAZTA	2	2	0	0	10	2	4
KAIXO LENIZ	2	1	0	1	10	9	2
SUM. IN. UGARTE	1	1	0	0	7	2	2
PUBLICOOP	2	0	0	2	4	11	0
MONTERREY TAB.	1	0	0	1	1	5	0
NOSKI	1	0	0	1	2	7	0
LORATEGI POTROAK	1	0	0	1	2	7	0
GUZTIRA	12	6	0	6	49	49	12

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NOTXINGAN FLO.	2	2	0	0	8	3	4
ADELAIDA HAIZEA	2	2	0	0	6	2	4
ZULUS	2	1	0	1	6	5	2
DANOK LAGUN	2	1	0	1	5	5	2
MIKELOS	1	1	0	0	4	2	2
JODO FLORO	1	0	0	1	2	3	0
BIZKORRAK	2	0	0	2	1	7	0
GURE LEKU	2	0	0	2	3	8	0
GUZTIRA	14	7	0	7	35	35	14

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
URMAY B. K.	2	1	1	0	7	4	3
BETRAYER	2	1	0	1	6	7	2
KOSKAS	2	1	0	1	6	7	2
MOTZ	1	1	0	0	3	2	2
TRIKITI	1	1	0	0	6	2	2
LASO ARREGI	2	0	1	1	5	6	1
LOS HEREDIA	2	0	1	1	4	7	1
LEINTZ GARAGAR.	2	0	1	1	6	8	1
GUZTIRA	14	5	4	5	43	43	14S

**JON ONANDIA (Notxingan Florest taldekoa)**



Jon Onandia Notxingan Florest taldeko aurrelaria da, batatz beste partiduko pare bat gol sartzen dituen horietakoa. Aurten iaz baino arazo gehiago izan dira aitortzen du.

Bera bigarren fasea jokatzeko ari da eta ez gaizki, bi partiduko jokatu eta biak irabazi, baina ez du etorkizurik ikusten "uste dut finala Argi Ibili eta Trikiti jokatu

duela". Nahiz eta finalerako aukerarik ez ikusi, Zaldibarren gustora dabil. "Zaldibar primeran dago, astero zerbait egiteko aukera eskaintzen du eta. Gainera, afarien zozketak bizitasuna ematen dio eta girotxoa piztu". Notxingan Florestek afariaren saria izan du; beste batzuk, berriz, ez. "Ez dut uste sistema txarra denik, guztiontzat zerbait

egin nahi genuen, baina ez zen posible izan, beraz, zorteak erabaki dezala".

Antolaketan bigarren urtea du Jonek eta aurrera begira, badu beldur apur bat. "Jendeak laguntzen ez badu ezin da txapelketa antolatu, horregatik sartu nintzen. Datorren urtean ez dakit zer gerta daitekeen, beterranoek utzi egin nahi dutela dirudi eta".

Zarugalde  
kalean...

**BRANKA**  
taberna

**AMAJUR**  
taberna

EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

FOTO  
**imagen**  
ARGAZKI

Zerkaosteta, 5  
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE

-----

**LIZARRA**  
taberna

Leintzibar kalea, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 72 35

-----



**BELARRIRA**



**Baloiarri ez zaio pistarik galdu behar, nahiz eta urrutian izan. Sorpresarik ez jasotzeko biderik onena horixe da, kontzentrazioz ez galtzea, ikusleentz presentziaz ahaztu eta jokoan murgildu. Eta hala ere, ahalegin guztiak egin arren, aurrean daudenak gehiago direnean burua makurtzea sarri egokitzen. "Ahal duguna egin dugu behintzat" esan eta aurrera.**

◆ **Kiroltasunerako deia**

Bigarren fase honetan lehen fasean baino konpetitibitate handiagoa ikusten denez, antolatzaile zein arbitroek kiroltasunaren aldeko deia zabaldu dute. Antolatzaileek diotenez, futboleant ezezik ezinbestekoa da kiroltasunean maila ona erakustea, guztion onerako izango baita.

◆ **Afarien zozketak**

Joan den astean, elurrak ATB seinale barik utzi zenez, ez zen afarien zozketarik burutu. Aste honetan, ATBko seinalearekin batera, afarien zozketak berriro iritsi ziren Mondrasport saioan. Aste honetako irabazleak "Atxanta que te merece" eta "Lorategi Potroak" izan dira. On egin!!

◆ **Partidu gutxi**

Joan den astean jokatu ez ziren partiduak jokatuko dira asteburu honetan, gutxi baina interesgarriak benetan. Interesaren barruan, nabarmen nabarmenak ondorengo bi hauek: Noski - Lorategi Potroak eta Mikelos - Jodo Floro.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Argi Ibili 7 .....	Pepelus 2
Zuloak 5 .....	Txoko taberna 0
Arrasate Kirolak 5 .....	Los Dimy 1
Nuevo taberna 4	Arrasate Kristaldegia 1

**B TALDEA**

Sum. Ind. Ugarte 7 .....	Noski 2
Zizti-Zazta 5 .....	Lorategi Potroak 1
Kaixo Leniz 6 .....	Publicoop 0
Diego Antonio 7 ...	Monterrey taberna 2

**C TALDEA**

Mikelos 4 .....	Zulus 2
Adelaida Haizea 3 .....	Bizkorak 0
Notxingan Florest 5 .....	Gure Leku 1
Danok Lagun 3 .....	Jodo Floro 2

**D TALDEA**

Trikiti 6 .....	Betrayer 2
Leniz Garagardotegia 3 ..	Los Heredia 3
Urmay Burger king 4 .....	Koxkas 1
Laso Arregi 2 .....	Motz 3

*Trikiti* S. L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56



**ASTEBURU HONETAN**

Elurraren ondorioz, hainbat partidu atzeratu ziren joan den astean. Horrelakoak gertatu izan direnean, Zaldibarko txapelketako antolatzaileek lehen bait lehen konpondu nahi izan dituzte, Txapelketa berehala behar bezala gera zedin. Oraingoan ere, antolatzaileek gauza bera erabaki dute eta, gehiago atzeratu gabe, larunbat honetan jokatu dira atzeratutako partiduak.

**Larunbata 13**

**Zaldibar**

- 10.00 Trikiti / Motz
- 11.00 Pepelus / Txoko taberna
- 12.00 Noski / Lorategi Potroak
- 16.00 Suministros Ugarte / Monterrey taberna
- 17.00 Mikelos / Jodo Floro

**NON DAGO BALOIA?**

**Non dago baloia?** Batzutan erraza izaten da galdera horri erantzuna ematea, joan den asteko kasuan esate batera; aste honetan, berriz, zailtxoago jarri dugu. Edozein modutan, saria eskuratzeko modu bakarra parte hartzea da, eta egia esan, ez da hain zaila, lautik bat! Asmatzearen, bada auzokoari *ARRASATE PRESSA* kentzen dionik ere. Hainbeste ez dizuegu gomendatzen, baina parte hartzea bai, saria hortxe dago eta.



**16. astea**

**Non dago baloia?**

- Erantzuna .....
- Izena .....
- Tfnoa .....

*Tripipublic*

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
  - Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
  - Bideo produkzioa •



● *Ricardo Donnay*

# Premiak zapatari bihurtu zuen gizona

**Ordenagailu eta goi-mailako teknologia azkarren garaiak dira, prezisioa eta azkartasuna bezalako baloreak saritzen dituzten garaiak. Mimos egindako lanak, errentagarritasunaren teoriaz, desagertzen ari dira. Hala ere, oraindik badira Ricardo Donnay bezalako gizonak. Ferrerías kaleko zapataria urte askoan, orain erretiratzera doa.**

— Betidanik izan duzu gustoko zapatagintza?

— Ez, nik ez nuen zapatagin izan nahi, hamalau urterekin ikasi nuen lanbidea baina lantegiak nahiago nituen. Gasteizen ibili nintzen lanean, krisia iritsi zen eta lanbidea aldatu egin behar izan nuen. Hona etorri aurretik, lan orduetatik kanpo, oinetakoak konpontzen nituen etxean. Materiala erosten nuen dendakoak egin zidan Arrasatera etortzeko proposamena, Zabalarekin harremanetan jarri eta traspasoan hartu nion denda, 50.000 PTAgatik. Orduan diru asko zen, ordaintzeko bost urtetako epea eman zidaten eta lau baino gutxiagoan bueltatu nuen dena.

● **“Asko ordaintzen bada, gaur egun oinetako onak erosten dira, baina bestela erdipurdikoak...”**

— Urteak pasatuta, lanbideari gustorik hartu diozu?


— Horixe, jende asko ezagutu dut eta jendea gustora geratu da egindako lanaz. Ez da dirua ateratzea izan bakarrik, dirua atera eta gainera lana mimo apur bat egitea izan da. Batzuk ez dute nahi izaten zapatak laguntzaileen esku uzterik, nik egiteko esaten didate eta horrek poza ematen du.

— Eta hemen negoziaririk egin duzu?

— Ba, bai! ez daukat kexurik, hemendik Arrasate osoa pasatu da eta. Negozioak gorabeherak izaten ditu urtaroren arabera, baina sekula ez da behean egon. Martxoan ez da oso hilabete ona izaten; beste hilabete batzutan, berriz, atea zabalik laga ezker, oinetakoak kaleraino eroriko lirarteke.

— Zapata asko egin duzu?

— Bai, gizon eta emakumezkoentzat. Nire emaztea, nik egindako oinetakoekin ezkondu zen. Zapata pare on bat egiteko, josita noski, egun t'erdia inguru behar da, hamabi bat ordu. Dirua ateratzeko ez du merezi zapatagintzan hasiatek, konpontzeak diru gehiago ematen du. Zapatagintzarako tresna guztiak aspal-



di bota nituen. Hala ere, noiz behinka etortzen da bakarren bat zapata eske, baina tresnarik ez dudanez, ezin izaten ditut egin.

— Onak dira gaur egungo oinetakoak?

— Asko ordaintzen bada onak erosten dira, baina bestela erdipurdikoak, gaizki pegatutakoak, 3-4 hiltzez jositakoak, edo jositakoen ize-nean albainduta saltzen direnak, asko dira horrelakoak. Nahi izanez gero, ondo egingo lituzkete, material ona erabiltzeko aukera dute eta.

— Hainbeste denboran enkargu arrarorik ere jasoko zenuen...

— Beno, ortopedia den-detako enkarguak batez ere, ardoa edateko zahatoen konponketak, hemen zegoela Guardia Zibila ere etorri izan

zait kartutxerak konpontzera, mendiko labanen fundak konpondu izan ditut... gauza dextente.

— Zapataria izanda oraindik atera daiteke bizimodurik?

— Materialak eta bizimoduak igotzen duena kobratzen dugunari ezartzen diogunez, bai. Denak igo du eta guk proportzio horretan garestitu behar ditugu prezioak, bestela ezin jan.

— Laguntzaile asko izan duzu?

— Bai ugari, gailegoak, zamorarrak, txarroak, ... denetarik. Orain lehen baino errazago ikasten da, lijatu eta pegatu besterik ez dago; lehen eskuz josi behar izaten zen, zolak eta zolerdiak norberak egin; orain erraza da, zolak eginda etortzen dira, kolak onak dira, ondo lijatu eta gusto apur bategaz, primerako lanak egiten dira. Erretiratzen naizenez, Gasteiza joango naiz bizi izatera eta zapataria negoziario laguntzaileak hartuko du.



# Adopzioa: umea izateko beste modua

Rosa Mondragon

**Gipuzkoako Diputazioak emandako datuen arabera, azken hamar urteotan zazpi adopzio izan dira Arrasaten. Erreportaia honetan, hiru bikoteren istorio desberdina ahalik eta zehatzen kontatzen saiatuko gara, beti ere, antzerako egoeran dauden bikoteak animatzeko balio izango duen itxaropenarekin.**

## ANDER: HIRU URTE DIRELA ADOPTATUA

Urte askoan modu naturalen bidez umeak edukitzeko ahalegin guztiak egin eta gero, eta mediku asko bisitatu eta gero, ume bat adoptatzeko erabakia hartu zuten Koro eta Xabierrek. "Oso zaila da erabaki hau hartzea, dauden bide guztiak probatu, eta ez dagoela beste modurik ziurtatu nahi genuen, medikuz mediku ibili ginen eta, umea izateko geneukan modu bakarra zela konturatu ginen". Zerrenda luze batean sartu ziren, hamazazpi hilabetetan esperantza gutxirekin Diputazioako gizarte laguntzailea-

rekin telefonozko harremanak izan zituzten... baina azkenean, telefono dei batez frogatu berezi batzuk egitera gonbidatu zituzten. Denbora gutxira, jaio berri bat adoptatzeko zain zegoela esan zieten, euren semea izango zena: Ander. "Etxean sartu zenean sentitu genuena ezin da esprikatu ere egin. Hurrengo egunetan ere-beldur apur bat eta arraro samar sentitu ginen. Haurdunaldirik gabe ume bat izan genuen." Koro eta Xabier medikuz mediku ibili ziren urte haietan, mediku batek umeak izateko inolako ezintasunik ez zutela esan zien eta hala izan zen, Ander adoptatu eta hilabete batzutura haurdun geratu zen Koro eta Anderrek anaiatxo bat izango zuen. Ordutik bi urte pasa dira eta gaur anaien arteko harremana dute. "Anderrri beti esaten diogu guretzat bera adoptatzea bizitzako gauzarik politena eta ederrena izan dela eta eman digun poza inoiz ez dela ahazten". Erabaki gogorra, bizitzako zailena hartu zuten; zerrenda luze bateko azken izenak izan ziren; beldur eta zailantza asko izan zuten Ander etxera etorri zenean... baina gaur ziur daude guzti horrek benetan pena merezi zuela.

## IÑAKI: MOMENTUZ HARRERAN

Celia eta Fernandoren istorioa erabat desberdina da. Adopzioerako desberdina den prozesu baten bidez, Iñaki adoptatzeko bidean daude; harrera prozesua jarraitzen dute. Berez ez dute inolako zailtasunik umerik izateko, baina orain dela lau hilabete hartu zuten Iñaki, "Ez dakit, askotan egin digute galdera bera eta inoiz ez dugu jakiten zer erantzun. Zergatik nahi dugun ume bat adoptatzea? beharbada solidaritateagatik edo". Celiak eta Fernandok ez zituzten baldintza asko jarri umea hartzeko orduan eta beharbada horrek lagundu zien bederatzi hilabetean umea etxera ekartzen. Mutikoa laster egin zen etxeko girora, baina laguntza asko izan zuten arlo honetan. "Zerbitzutik laguntza asko eskeintzen dute: telefonoak, pertsona adituak... alde horretarik ez dugu izan inolako



Gero eta bikote gehiago daude adopzio...



oztoporik” Iñakik urte t’erdi zuen etxera etorri zenean eta oraindik ere bere guraso biologikoekin harremana mantentzen du hamabostean behin. “Horrek, nolabait Iñaki oraindik bere guraso biologikoena dela gogora ekartzen digu askotan. Badirudi ohitu dela gurekin bizi izatera eta, beretzat ere txoke handia izan behar du bi familiekin kontaktuak mantentzea”. Geroari begira harrera hau adopzioan bukatzea espero dute eta, bien bitatean epailearen esku geratzen dira baldintza eta hartu beharreko beste erabakiak, izan ere, Iñakiren familiak bizi dituen arazoak medio, giro egoki bat bilatu diote, kasu honetan Fernando eta Celiarekin dutena. Baina baliteke familiaren egoera hobetzea eta Iñakiren zaintza berriz ere eskatzea; kasu horretan, guraso biologikoek dute eskubide osoa. Oraindik, beraz, ez dakite zenbat denbora itxoin behar izango duten.



Fernando eta Celiak Iñaki adoptatu nahi dute.

#### ADOPZIOA ATZERRIAN

Itziarrek eta Jonek, Koro eta Xabierren antzera, modu naturalez umea edukitzea ezinezko zutela eta, ume bat adoptatzea erabaki zuten. Diputazioari zerbitzura jo zuten lehendabizi, baina itxoiteko zerrenda luzeak zeundela eta, umea atzerrian adoptatzeko bidea hartu zuten. “Urtean ume bat bakarrik adoptatzen zela eta esan ziguten behar bada hamar urte itxoin beharoko genuela”. Hori dela eta, atzerriko herrialde batean zuten lagun batekin kontaktuan jarri eta tramitazioak hasi zituzten. Tramitazio hauek hasi eta ia urtebetera, hilabeteko umearen kustodia lortu zuten; hala ere, epaileak tramitazioak egin arte, sei hilabete pasa ziren. Tramitazio hauek egin eta gero, Itziar eta Jon bertara joan ziren eta umea ezagutzeko eta berarekin bizi izateko aukera izan zuten. Bertan bi hilabete egon eta gero, Arrasatera etorri ziren. Orduetik hilabete batzuk pasa dira, eta eguneroko bizimodu normalean integratu dira jadanik. Bikote asko izan dira atzerrian adoptatzeko interesa izan dutenak eta hauengana zuzendu direnak. “Guk beti animatzen ditugu baina, gauzak lasai hartzeko ere esaten diegu, prozesu luzea da eta”.

#### Gaiari buruz hitz egiteko arazoak

Erreportaia hau egiteko sei bikoterekin jarri gara harremanetan. Horietatik hiru prest agertu dira gaiari buruz hitz egiteko eta beste hiruk ezetza eman digute. Ezetza eman digutenean zergatietariko bat hauxe izan da: “nere semeari denbora gutxi dela esan diogu adoptatua dela, eta oraindik nahiko txarto hartu duela uste dugu. Horregatik, eta beste seme bat ere badugunez, ez dugu nahi erreportaia honengatik berezi sentitzerik”. Gai honi buruz hitz egitea oraindik “tabu” dela iruditzen zaigu. Hain gauza normala den honetaz, oraindik ezin da hitz egin, oztopoak daude, gizarteak berak edo denon artean jarri ditugun oztopoak. Konturatuko zineten bezala, erreportai honetan guraso eta umeen izenak besterik ez dira agertu eta argazkirik ere ezin izan dugu atera.

**G**

**u bezala modu naturalez umea izatea ezinezkoa duten bikoteak umea adoptatzera animatuko nituzke. Inoiz ere ez dugu ahaztuko Anderrrek eman digun poza”**



ko pres, baina umeak gero gutxiago dira.



# Teka - Mepamsa, eskubaloi onena Iturripeko kantxan

**Europako** talderik onena ei denak Tekak eta Iruñeako Mepamsak indarrak neurtuko dituzte larunbatean Iturripeko kiroldegian arratsaldeko 7etatik aurrera. Ibon Abasolo memorialaren barruan, maila goreneko eskubaloia bizi-bizian ikusteko aukera. Jakinaenez, Ibon Abasolo istripuz hil zen eta Arrasate Eskubaloi Taldeko zuzendaritzak urtero goi-mailako ikuskizun bat antolatzeko konpromezua hartu zuen. Iaz Moskuko CSKak eta Mepamsa taldeek hartu zuten parte Ibon Abasolo memorialean.



Teka, Europako talderik onena ei da.

## Goi-mailako ikuskizuna

Teka taldeaz hitzegitekoan adituek Europako talde onenaz hitzegiten dute, eta aurten Eskubaloiko Munduko Txapelketari eman behar zaizkio Santandergo taldea Arrasaten egoteaz, Munduko Txapelketa jokatzeko ari denez, liga-txapelketa geldirik dago eta. Hasieran, Arrasateko Eskubaloi taldekoen asmoa partidua Teka eta Bidasoaren artean jokatzeko zen, baina irundarrek, planifikazioa arazoak medio, ez dute etortzeko aukerarik izan.

Edozein modutan ere, ikuskizuna ziurtatuta dago, Iruñeako Mepamsa taldea edozeini itxuraz aurre egiteko modukoa baita. Santan-



Mepamsa, ohorezko mailan ez jokatu arren, talde gogorra da.

dergo taldea zein Iruñeakoa, figura gehienekin etorriko dira eta Iturripeko kantxa gainean izango dira Mats Olsson, Javier Reino, Talant Dujshabaev, Julian Ruiz, Jaime Puig, Juan Muñoz Melo,

Mikail Iakimovich....

Partidua ikusteko 500 PTAko sarrera ordaindu behar dute helduek; jubenilek edo gazteek, berriz, 200 PTAkoa. Partiduaren antolakuntzan guztira 250.000

PTA inguru gastatuko ditu Arrasate Kirolak Eskubaloi taldeak, gehiena partiduan ostean bi taldeek egingo duten afarian eta Santander eta Iruñeatik Arrasateko bidaia ordaintzen.

BLUSAK  
OSAGARRIAK  
POLTSAK

**XAHO**

ANGELA UNZUETA

Novecentoesklusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

*ESLU*

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE



**PENALTIAK**

● **Elgorriaga Bidasoak Ibon Abasolo** memoria-lera ez etortzeko, planifikazio arazoak argudiatu zituen, baina baliteke benetakoa arrazoia oso bestelakoa izatea: are-rioa Teka taldea izatea, irundarrek ligan duten etsairik gogorrenetarikoa. Uste hori dutenak ez dabilta oker.

● **San Jose egunean Mondra eta Tolosa** taldeen arteko partidua jokatu da Atxabalpen, elurraren ondorioz atzeratu zena. Mondrarentzat aukera aparta izango da diru apur bat eskuratzeke, egun horretan hemen inguruan ez baita inolako futbol partidurik jokatu. Ea Atxabalpeko sarreretan nabaritzen den hori!




**Atxabalpe ondoko instalakuntzak hobetu behar**

Askotan kirolaren berririk politenak ez ditu kirolak sortzen, kirolaren inguruak baizik. Argazkiko irudia emakumezko Mondra eta UDAREN arteko partiduan jasotakoa da, kirol-ikuslea kirol-fotonotiziaren protagonista bihurtuta. Egia esan, salaketa txikitxo bat egiteko irudi adierazgarria da, Atxabalpe ondoko zelaiak eginbeharrak egiteko ez baitu inolako erosotasunik eskaintzen. Lasai samar egonez gero, ez dago arazorik Atxabalpeko komunearaino joateko, baina larritasuna nagusitzen denean, orduan ahal den moduan egin behar!

**Asier Guenetxearen denboraldi hasiera?**

Oso ona eta gainera uste dut ez dabilela sasoi onenean, gripeak ere harapatu du eta.



**XABIER LAZPIUR**  
Banesto taldeko txirrindularia

**EMAITZAK**

**Pilota**

Gipuzkoako kopa, Arrasate - Amezketak  
Alebinak: Amezketak 18 - Arrasate 15  
Infantilak: Amezketak 9 - Arrasate 18  
Kadeteak: Amezketak 18 - Arrasate 14

Deba Arroa Txapelketa  
Infantilak: Aloña Mendi 13 - Arrasate 18  
Jubenilak: Aloña Mendi 15 - Arrasate 22  
Seniorrak: Aloña Mendi 16 - Arrasate 22

Infantilak: Arrasate 18 - Antzuola 3  
Jubenilak: Arrasate 12 - Antzuola 22  
Seniorrak: Arrasate 22 - Antzuola 3

**Eskubaloia**

Seniorrak: Loloia 25 - Arrasate Kirolak 21  
Juniorrak: Zestoa 25 - Arrasate Kirolak 26  
Jubenilak: Arrasate Kirolak 17 - Ormaiztegi 13  
Kadeteak: Urnieta 13 - Arrasate Kirolak 21

**Hurrengo partiduak**  
Kadeteak: Arrasate Kirolak - Urola, igandean 10.15etan Iturripen.  
Jubenilak: Zumaia - Arrasate Kirolak, igandean 11etan Zumaian.  
Juniorrak: Arrasate Kirolak - Akondia, larunbatean 4.15etan Iturripen.  
Seniorrak: Pasaia - Arrasate Kirolak, igandean 11.30etan Pasaian.

**Saskibaloia**

Seniorrak: Gizonezkoak, Arrasate 75 - Patronato 91  
Emakumezkoak, Gernika 66 - Arrasate 54.  
Juniorrak: Eskoriatza 70 - Arrasate 73  
Jubenilak: Gizonezkoak, Arrasate B 61 - Ikastola Urtek 65  
Emakumezkoak, Arrasate A 72 - Hondarribia 31  
Kadeteak: Gizonezkoak, Eskolapios 56 - Arrasate A 82  
Arrasate B 58 - Almen 56  
Arrasate C 2 - Laskorain 0 (Ez zen aurkeztu)  
Emakumezkoak: Juven 44 - Arrasate A 32

**Hurrengo partiduak**  
Seniorrak: Gizonezkoak, Caja Vital - Arrasate, larunbatean Gasteizen.  
Emakumezkoak, Arrasate - CBN, larunbatean Musakolan 6etan.  
Juniorrak: Arrasate - Zarautz, igandean Musakolan 12etan.  
Arrasate B - BKL CAF, larunbatean Musakolan 4etan.  
Emakumezkoak, Arrasate A - Eskoriatza, igandean Musakolan 12etan.

**Rugbya**

**Hurrengo partiduak**  
Seniorrak: Arrasate - Eibar, larunbatean Garagartzan 4.30etan.  
Jubenilak: Eibar - Arrasate, larunbatean Zarautzen 4.30etan.  
Kadeteak: Atletico San Sebastian - Arrasate, larunbatean Donostian 5.30etan.

**Futbola**

Hirugarren maila: Lagun Onak 1 - Mondra 1  
Emakumezkoak: Mondra 4 - UDA 1  
Preferentea: Ariznabarra 3 - San Andres 1  
Ohorezko maila: Mondra 2 - Añorga 0  
Jubenilak, lehen maila: San Andres 1 - Alaves 2  
Jubenilak, bigarren maila: Arrasate 0 - Hernani 1  
Kadeteak: Mutriku 2 - Arrasate 1  
Haurrak: Oiarzun 2 - Arrasate 2  
Arrasate 8 - Aloña 0  
**Hurrengo partiduak**  
Hirugarren maila: Mondra - Urola, igandean Atxabalpen 4.45etan.  
Preferentea: San Andres - Aurrera, larunbatean Atxabalpen 4.30etan.  
Kadeteak, lehen maila: Arrasate - Mutriku, larunbatean Atxabalpen 12etan.  
Kadeteak, bigarren maila: Soraluze - Arrasate, igandean Soraluzean 11.30etan.  
Haurrak: Arrasate - Billabona, larunbatean Atxabalpen 10.30etan.  
Bergara - Arrasate, igandean Bergaran 10.30etan.

**Mondra - Tolosa, hilaren 19an arratsaldeko 5etan, atzeratutako partidua Atxabalpen.**

**Zarraoa**

**ESTETIKA ZENTRUA**  
Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.  
• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA



# Arrasateko Ikastetxea

• *Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara* •

• **Arrasateko Batxilergo Institutua** •

**Ikastetxe publikoa  
1993-94 ikasturtea**

## **IKASKETA ESKAINTZA**

Batxilergoko 3 kurtso eta UBI.

Ohizko irakasgaietaz gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erlijioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, diseinua, informatika, frantsesa
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
  - A. Zientzia arloa
  - B. Letra arloa
  - C. Zientzia-letra arloa
- U.B.I.:
  - A.Zientzia-teknologia arloa
  - B. Arlo bio-sanitarioa
  - C. Giza arloa
  - D. Linguistika arloa

## **EZAUGARRI OROKORRAK**

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

## **EKIPAMENDUA**

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia.

## **AURREINSKRIPZIO EPEA**

Maiatzean.  
Tfnoa: 79 44 47-37

**MATRIKULA DOHAINIK!**



Musakolako Institutua



# stetxe Publikoak

- *Haurrak haur, bereizkeriarik gabe,  
herri eskolan dudarik gabe* •

## • Arrasateko Herri Eskolak •

### MATRIKULA-EPEA IREKI DA!

#### ESKAINTZEN DUGUNA:

#### **IRAKASTEKO EREDUAK**

Inmertsioa  
D Eredua  
B Eredua

#### **IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA**

Informatika, Ingelesa, Hezkuntza berezia,  
Soinketa eta Musika.

#### **PEDAGOGIKOKI**

Talde multiprofesionala eta  
P.A.T. aholkuak.

#### **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**


Guraso Elkarteen laguntzarekin.  
Multikirola, zinemaldiak, esku-lanak,  
argazkigintza eta bestelako ikastaroak.  
Tailerrak (Kontsumoa, ingurugiroa,  
drogomenpeketasuna, sexualitatea, aisia,  
goxoki tailerra...)

#### **BESTE ZENBAIT ZERBITZU**

Jangela eta garraioa  
Laborategia eta Liburutegia

Informazioa osatu nahi baduzu,  
dei egin ezazu:

- Erguin: 79 77 74
- S.Andres: 79 00 44
- Musakola: 79 04 49



San Andres



Erguin



Musakola





Seguran dagoen Gebaratarren oinetxea.

## Erreketaren aurretik (II)

**Garai** horretan, Aretxabaleta eta Eskoriatzarekin osatzen zen Leintz Bailara eta Oñatiko Jaunaren edo Gebarako etxearen mende zeuden, "Kondepekuak" ziren. Jaun hori Ganboatarren Bandokoen senitartekoa zen, eta horren jabegokoak ziren Mondragoeko hegoaldeko lursail guztiak, harresietarainoko guztia. Handik, Zalgibarko dorretik zaintzen zuten dena eta Mondragoetarrak zirikatatu ere bai, antza denez.

Pedro "ankerra" eta Enrike II.aren arteko borroka

dinastikoetan Oñatiko Jaunak Enrike II.aren irabazlearen alde egin zuen, eta horren truke Mondragoeko jauntxo egitea eskatu ei zion Erregeri. Mondragoetarrek, horren berri jakitean, halakorik ez egiteko erregutu zioten Enrike II.ari, eta herrixka bisitatzera etortzeko gonbitea luzatu. Oñatira egin zuen bisita aprobetxatu zuen horrek, eta Erregebidea in-auguratzuz egin zuen gure herrirainoko bidea. Herriko dorre eta harresiak ikusi eta bertan burdinoletan eta bes-telako merkataritzan egiten

zen lana aintzakotzat harturik, mondragoetarren alde irten zuen Erregek, eta Gatzaga eta Mondragoe ezik, bailarako beste lur guztiak eman zizkion Guevarakoari. Gatzagakoarena nonbait ez zuen berak hala ulertu, eta 120 urtez luzatu ziren borroka eta pleituak.

Guevarako jauna hil eta bere seme Pedrok hartu zuen agintea, eta izen bereko beste Pedro batek ondoren; hura gartzetan hil eta haren seme Pedro izan zen erreketaren protagonista, geroago azalduko denez.

## SUTONDOAN

### ANJEL ABELETXE ETA BITTORIANATXO SORGINA (IV) (Gertatua)

*A* beletxeakoak, behin San Juanak urreratu ezkerro, beren etxepetik igarotzen diren bidezabal eta ibaiaren bestaldeko aurrez aurrez dauzkaten albitz mendira bidaltzen zituzten bildotsak, euren amengandik bereizteko. Mendi horren ezkerreko hegaletik behera datorren arro beltz eta ilunari, Erreka Beltz deritzo eta horren ondoan bertan auzoko hilobitegi edo kanposantua eta hogeit bat metro gorago Abeletxe ardi txabola. Biok, izan daitekeen leku itzaltsu eta beldurgarriean. Berrogei edo hogeita hamar metro gorago, eskuin aldera berriz, guztizko toki argi eta alai.

Urriaren lehen egunetan entzun zuen Bitorianatxok sorginik ez zela eta une hartatik bertatik hartu zuen baieztatze asmo sendoa ere. Egun bereko arratsaldera, agertu zen bada Araba aldetik odei multzo txiki bat, eta hor bosteterdiak aldera asko loditu eta itxura txar guztiak hartzen hasi zen. Anjel garai hartan arto biltzen mangutsik ari zen eta dena bertan behera lagata, zegoen bezalaxe, bildotsak txobolaratzera abiatu zen beti ohi zuen bidetik. Baita Bitorianatxo ere, aterkin bat eta behar ziren sorgin-tresna guztiakin, baina beste bide batetik eta Anjel baino askotxo laburragotik. Baina ekaitz beldurgarri hura noren aginduz zetorren? Ez ote zuen gero gure sorginak berak gertatu orratz-ontzian zerabilkien xomorro horien bidez?

(Jarraituko du)

ARREGI TAR TIBURTZIO

**"PAL"**

Burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri Etorbidea, 3  
Tfnoa: 79 31 99

**IBARRA**  
Garajea S.L.



Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

**ARRASATE**  
PRESS

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**





**J**an Viator Ikastetxeak ohitura zuen, bertan ibilitako guztiek gogoratuko dutenez, ikasturte bakoitzean talde bakoitzari Santa Barbaran erretratu ateratzeko, horrelako gauzak artxiborako gustoko zituen irakasleren bat egon, nonbait. 1968-69 ikasturtekoa da erretratu hau. Gaur baino talde ugariagoak eta mutiak bakarrik, gainera.

Goiko lerrotik hasita, ezkerretik, **Mikel Otero, Joxe Ramon Uribarren, Joxe Juan Iria, Joxe Inazio Mendarozketa,**

**Josetxo Urrutia, Jose Luis Urzelai eta Xabier Salaberri.**

**Pepe Poyato, Valde-rrama, Mikel Lasa, Joakin Rodriguez, Modesto Zufiria, Iñaki Iñurrategi, Juan Migel Mendieta, Joxe Ramon Vitoria, Alex Zubia, Timoteo Rodriguez, Pedro Regos eta Juan Ramon Roa.**

**Jon Salaberri, Baletin Ortuoste, Iñaki Ruiz de Austri, Jesus Larrañaga, Uriarte, Fernando Ballina, Jesus Zalama, Jose Luis Vicario, Pedro Isas-**

**mendi, Emilio Leon eta Jose Inazio Mendieta.**

**Jesus Mari Luengo, Juan Antonio Montiano, Fernando Narro, Alberto Mendieta, Iñaki Lete, Espinosa, Enrike Letona, Juan Isazelaia, Frantzisko Jabier Uribe eta Jon Belar.**

**Iñigo Leibar, Mikel Letona, Fernando Okina, Jorge Usandizaga, Eduardo Mendikute, Iñaki Otxoa, Juan Jose Urria, Jose Salaberri, Jose Inazio Telleria eta Heriberto Lasa.**

**Garagartza auzoa**  
**Tfnoa: 79 76 58**  
**ARRASATE**

**UGARAN**  
**jatetxea**

**Arreta handiko**  
**sukaldea**  
**Giro abegikorra**



**Etxebizitzak**

- Arrasaten edo inguruetan eskailararik gabeko etxe baten bizileku edo logela behar dut. Dei egin 77 05 65 tfnora.
- Garajia salgai, itxitxa. Atxabaltan, Errekabarrenen. Tfnoa: 79 58 98.
- Etxea salgai Aretxabaletan, berrituta eta jantzita. 71 47 09 tfnora dei egin.
- Donostian gela bat edo pisua behar da. Tfnoa: 79 47 09.
- Bi oheko gela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.

**Lana**

- Neska bat prest dago umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 39 49.
- Esperientziadun neska etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 72 92.
- Esperientziadun mutilak pertsona nagusiak zainduko lituzke. Atarteak garbitzeko ere prest nago. Tfnoa: 79 50 30. Jose Miguel.
- Andra euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Emakume euskalduna arratsaldean etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 77 05 90.

• Alemanez mintzatu nahi duzu? Metodo erreza eta atsegina. Ama-hizkuntza ikasi zenuen bezala, gramatika gabe, ordua aukeratuz. Tfnoa: 79 41 23. Altzaga jauna.

• OHoko klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.

• Esperientziadun neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Dei egin 79 21 63 tfnora. Utzi mezua erantzungailuan.

• Frantzeseko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 51. Eva.

• Ingeleseko ikastaro trinkoak ematen dira. Hasiera, apirilaren 19an. Tfnoa: 79 24 59.

• Etxean egiteko lan serioa eskaintzen da 18 urte baino nagusiagoentzat. Erantzuna eta informazioa jasoteko sobre bat sigilu eta guzti P. I. de Barrutia 1. Ezk. (Aramaio) zuzenbidera.

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.

• Leintz Akademiaren alemanezko, ingelesezko eta italianoetako klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 81 30 eta 79 51 09.

**Denetarik**

- Lentilak aurkitu nituen Ferrerias kalean, deitu 77 05 65 tfnora.
- Udaletxeko Joni zorionak. Disfrutatu biok zuen egoera sozial berrian.

**Salerosketak**

- Salgai Taunus Tropicano 10-F berogailu-hai-zagailua.
  - Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.
  - PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak). Prezioa: 9.000 PTA.
  - "Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina. Guzti hauetarako dei egin 77 08 15 tfnora. Kepa.
- Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai. Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gaineke (enzimera) su elektrikoa oparrian doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.
- Yamaha 250 c.c 88. urtekoa eta Kawasaki 125 c.c 87. urteko motorrak salgi. Dei egin 71 42 22 tfnora. Jon.
- Moto Guzzi California Custom salgai. 450.000 PTA. Tfnoa: 79 87 62. Joxe.
- Nintendo kontsola eurokonektorea behar duena salgai 7.500 PTAan. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.
- Nissan Vanette SS-AG furgoneta salgai. Tfnoa: 51 51 41.
- Mahai borobila, aulkiak, aparadorea eta alfonbra batzuk salgai. Dei egin Betatik aurrera 79 52 96.

**Aste Gazte**

**Barnetegiak**

• Negua ere sasoi egokia izan daiteke zeure Euskarari bultzakada bat emateko. Barnetegi batetan, adibidez. Batzuk hilero hasteko aukera eskaintzen dizute (Lazkao, Zornotza, Lesaka). Eta Udalak dirulaguntzak ematen ditu. Anima zaitetz!

**Zuhaitz eguna**

• Martxoak 13, larunbata, zuhaitzen landaketa Garagartzan. OHO 6. mailako

neskamutilen kolaborazioaz egingo da. Goizeko 9.30etan Plazatik irteera.

**Bekak**

• Lurralde antolamendu eta hirigintza prestatze arloetan aritzeko lankidetzak eta ikerketa bekak. Goi mailako titulatuak zuzendutakoak. Epea: martxoak 23.

**Lehiaketak**

• Beasaingo jaietako egitarauaren azala aukera-

tzeko lehiaketa. Teknika libre. 45.000 PTAko saria. Epea: apirilak 7.

**Zorionak!!**

• Herriko bi gazteri: Mariela Barquerori, Euskadiko Batxiler Sari Berezia eskuratzeagatik eta Jon Anduezarri, Gabriel Aresti lehiaketaren lehenengo sariagatik.

**"Kode Penal berriak gizon "kutsua" du. Emakumei dagoz-kien gauza guztien irtenbideak gizon ikuspegi batetik ematen direla nabaritzen da."**

**CRISTINA ALMEIDA**  
ABOKATUA ETA IUKO  
DIPUTATUA



**Informazio gehiago:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
**Tfnoa: 77 00 65**



# ZER NAHIAGO?

## Mentxu Bastardo

### Jai Zale tabernakoa

- **Feministen alde ala kontra?** Alde, uste dut beti egon naizela euren alde.
- **Euskaraz ala erdaraz?** Erdaraz, baina euskara ikasten nabil eta laster euskaraz egingo dut.
- **Futbola gustatzen?** Ez, beste kirol batzuk, saskibaloia adibidez, gustatzen zaizkit, baina futbola ez.
- **Zertan duzu sinismen handia?** Ezertan ere ez. Gaurko gizarteko egoera hobetzeko itxaropena dut baina sinismena, ez dakit.
- **Zer da jasan ezin duzuna?** Arrazismoa, hipokresia... gauza asko, baina azkenean ohitu ere egiten gara gauza batzuetara.
- **Bizikletan ibili ala gimnasia egitea?** Bizikletan ibiltzea, baina ez naiz asko ibiltzen.
- **Pelikula bat?** "La sombra del lobo" adibidez.
- **Ohera sartu aurretik, ohe azpian begiratzeko ohiturarik?** Ez, ez naiz beldurtia.
- **Haratuzteak gustatzen?** Bai, aurtin mozorroto egin naiz eta oso ondo pasa dut.
- **Alkoholarekin ala barik?** Alkoholarekin, bizitza piska bat alaitzeko balio du behintzat.
- **Argazkietan ondo ateratzen zara?** Beno, ez ondo ez txarto, normal.
- **Kafe konpletoa hartzeko ohiturarik?** Ez, kafesnea eta zigarroa, besterik ez.
- **Zer da ekologista izatea?** Naturaren arazoak aztertu eta konponbideak bilatzea.
- **Nora begiraten diozu pertsona bati ezagutzen duzunean?** Begietara.
- **Txikitan nolakoa zinen?** Nire amak esaten dit oso ona nintzela, inuzentea.
- **Bizitzako egunik tristeena?** Ez dut gogoratzen bat konkretuki, asko izan ditut tristeak.
- **Zer egiten duzu errazago, barre ala negar?** Bada, zorionez barre gehiago egiten dut.
- **Amets gaiztorik izaten duzu?** Ez, oso gutxi. Aspaldian behintzat ez dut izan.



## BERTSOAK

### DORLETAKO AMA TXIRRINDULARIEN GIDARI

Dorletako Ama, guztiz laztana Lenizko txoko honetan mirari haundi ikusgarriak egiten diguzu bertan. Nola daukagun arrisku haundi gaur egun kaminuetan gaztetxo hauen babesa dago Ama zure eskuetan.

Guk euskaldunok zorionean badugu nahiko gidari, baina sarritan etsaiarekin ibiltzen gara gudari eta Amatxo Dorletakoari otoitz egiñaz ugari, zeru-goitikan lagundutzeko txirrindulari denori.

Dorletako Ama zuk badakizu gu nola bizi geraden, arrisku eta zirrikaria besterik ez dago hemen. Txirrindulari hildako asko istripuaren ondoren, zure ondoan hartu itzazu betiko zeruan Amen.

KEPA URAIN



PEUGEOT - TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



## JOSU

TXOKOLATEGIA  
KAFETEGIA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66

## beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

## Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28  
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

## ARRASATE PRESS

## HARPIDETZAK



77 05 65



# Osasuna eta gaisotasunari buruzko gogoeta

Gizartean orohar, sendakutzaren garapena osasuna eta gaisotasuna ulertzeko moduarekin loturik dago. Gaisoaldia Jainkoen zigorra zela uste zen garaian, osasuna apezten monopolioa izaten zen. Geroago, gaisotasunaren jatorri organikoa aurkitu zenean, sendakuntza-sistemaren kontrola sendagileen eskuetara pasatu zen eta berehala gaisotasunaren kontrako lanari ekin zioten, asistentzia eta terapeutikaz ia soilik gaisotasuna eragiten duten faktoreak kontutan hartu gabe.

Baina gaisotasuna, ikuspegi zabalago batez aztertzen badugu, bere sorrera ikertuz alegia, berehala ohartuko gara ingurugiroaren erasoaren ondorio biologiko, fisiko-kimiko, eta psikosoziala dela gehiengat.

Adibidez, higie falta dela medio infekzioaren bat hartzen dugunean gure gorputzak sukarra sortzen du infekzio horren aurka borrokatzeko.

Gaur egun, gizarte industrialetan, European, heriotza dakarten arrazoi nagusiak honako hauek dira:

1— Minbizia: zenbait agente kantzerigenok eragiten duten alterazio genetikoaren ondorioz sortutiko disregulazio zelurrara. Minbizi sortzaile direnak: kanpo-faktoreak, hau da, ingurune faktoreak



(zenbait birus, erradiazio, agente kimiko, kutsadura eta abar) eta barne faktoreak, hau da, minbiziaren agerpena errazten duten zenbait eritasun heredagarri badaudela, baita nolabaiteko predisposizio heredagarria ere.

2— Bihotzeko gaitzak; bihotzeko edo infartoa, elikadura eta bizitzeko erarekin erlazionatuak daude batez ere.

3— Istripuak: oso loturik daude errepideen egoeraz eta gaur egungo kontsumo kulturarekin.

Beste aldetik hirugarren munduan, pobrezia dela medio, desnutrizioa eta infekzio-dun eritasunak dira heriotzaren arrazoi nagusiak, Somalia kasu.

Ikusten dugunez, gaisotasuna gizarte egoera jakin bati lotua dago. Honela beraz, sen-

dakuntza sistema baten helburua ez daiteke gaisoak zaintzera bakarrik muga. Are gehiago, gaisotasun kateari ezezik, agente sortzaileei dagokien egituratzeari ere ekin beharko dio, gizartearen huts egiteak eta defizitak desestali eta salatuz.

Sendakuntza antolatuta eta eragitea, gaisoak ongi zaindu eta babesteko dituen asistentziarako zerbitzu osoa baino zerbaite gehiago da. Ingurugiroa zaindu behar da, etxebizitzak hobetu, bizitza eta lan baldintzak egokitu, elikaduran, higie sexualean eta gainontzeko sailetan gizon-emakumeak hezi egin behar dira.

Osasun promozioan oinarritzen den erakunde berri eta egoki bat antolatzen saiatu behar da. Osasuna ondasun positiboa dela aitortuz eta inola ere

ez gaisotasunik eza soilik.

Honekin bat datoz Nazioarteko Sendagile Kongresuan hartutako erabakiak, besteak beste: "Gizaki orok duen osasunerako eskubidea aldarrikatzen dugu beraz, osasun alorreko prestazioaren berdintasuna eskatu eta bultzatzen dugu. Osasun sistemak osasunaren bultzatzaile izatean eta gaisotasunaren prebentzioaren oinarritua izan behar du".

Teorian, prebentzioaren garrantzia handia dela edonork aitortzen du eta gaisotasunari aurre hartzeko bide bakarra dela gainera. Baina gure herrialdi honetan, sinisgaitza bada ere, herritarren osasunak ondo funtziona dezan behar beharrezko dituen baldintzak zokoratu egin ditugu.

Gaur egun, krisi ekonomikoa dela medio Osakidetzak, zenbait prestazio sektore pribatura pasatzeko asmoa du. Ez dut uste sistemaren pribatizazioak denetzat onurarik ekarriko duenik, konturan eduki behar baita entitate pribatuak etekinik emango ez duen gizarte zerbitzurik ez duela bultzatuko eta horren ondorioz ez du egingo gaisotasun prebentziorik eta herritarren osasuna bultzatzeko ahalegin serioirik.

EUGENIO ITURRIOTZ,  
MEKIDUA

.....  
**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**  
.....

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**BAZAR**  
TOKI ON

**Begoña**

lurrindegia

Drogeria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

**FELIPE  
MADINA**

**ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78



## LABURRAK

**Deba Garaiko Eskola arteko abesbatzen VI. topaketak**

Arrasateko San Frantzisko Xabier ikastola, Arrasateko Udala eta Lankide Kutzak Deba Garaiko Eskola arteko abesbatzen VI. topaketak antolatu dituzte. Eskolaurreko ikasleak, O.H.O.ko Hasera, erdi eta goiko ziklokoak, aurkez daitezke topaketa hauetara. Abestiak dantzaz, jokuz...osa daitezke eta talde bakoitzak aukeraturako bi abesti kantatuko ditu, obra bakoitzaren partituraren arabera. Izenak emateko epea gaur bertan bukatzen da eta San Frantzisko Xabier ikastolan egin beharko da. Topaketa horiek apirilaren 3an izango dira.

**Euskal dantza ikastaroaren hasiera**

Pasa den ostiralean hasi zen 15 urtetik gorakoei zuzendutako euskal dantzen ikastaroa. Klase hauek ostiralero emango dira eta Udaleko Gazte Zerbitzuak eta Lore Gazteak antolatu dute.



# Leire Diaz de Gereñu

## Gazte Batzordea sortu nahian


**Arrasateko gazte talde batek, martxoaren 8rako Gazte Batzordea sortu du. Emakumearen Nazioarteko Egunean antolatu dituzte ekintza gehienak batez ere, baina taldeak jarraipena euki dezan ere ahalegin guztiak egingo dituzte.**

— Zer helbururekin sortu da talde berri hau?

— Nik aspalditik izan dut neska gazte talde bat sortzeko gogoia, neska gazteen arazoetaz hitz egiteko eta konponbideak bilatzeko. Arrasaten, orain arte, Egizan eta Emakumeen Asanbladak antolatu dituzte arlo honetako ekintza gehienak. Institutuan ere saiatu nintzen askotan, baina bertan behera geratu zen. Aurten, martxoaren 8ko eguna aprobetxatuz, zerbait egitea pentsatu genuen, gure presentzia ere nolabait nabaritu zedin.

— Zeintzuk osatzen duzue taldea?

— Ideia hau martxan jartzeko erabakia hartu genuenean, Arrasaten dauden gazte talde eta elkarte guztiei luzatu genien gonbidapena eta egia esan asko animatu ziren. Neska zein mutilek hartu dute parte emakumearen eguneko ekintza hauetan, behar-



bada oraindik gazteen artean, eztabaidarik ez delako egon neska eta mutilen artean eta bestalde, denon artean hitz egiten badugu, gauza berriak irtengo direlako, arazo berriak, konponbide berriak. Hala ere, neskok gehiago sentitzen ditugu arazo horiek eta beti izango du eragin gehiago gudan.

— Talde honek izango du jarraipenik?

— Beno, espero dezagun

.....

**“Aurten, martxoaren 8ko eguna aprobetxatuz, zerbait egitea pentsatu genuen”**

baietz. Momentuz, egun honetako ekintzak antolatzeko sortu da eta egia esan, ez dut gazte talde bat sortzeko irrika handirik ikusten. Gazte gehienek talde hau sortzeko beharrik ez dutela ikusten uste dut, eta beharra ikusten ez den bitartean ez gara mugituko, ez gara talde bezala bilduko. Horregatik, kontutan hartu behar da egun honetarako ekintzak antolatzeko taldea izan dela eta momentuz nahikoa dela, horrekin konformatu beharko dugu. Denborak esango du taldeak jarraipena izango duen ala ez.

— Zelakoak izan dira zuen arteko lehen kontaktuak?

— Alde horretatik, oso inportantea izan dira martxoaren 8ko ekintzetan izandako harremanak, gure artean hasierako kontaktu bat sortu delako eta arazo batzuetan behintzat hitz egin dugulako. Uste dut feminismoak berriztapen bat behar duela eta horretarako gazteok esateko duguna oso inportantea dela. Jende gaztearen parte hartzerik ez badago, ezin da aldatu. Baina, niretzat inportanteena hitz egitea da, gure artean gure arazoetaz hitz egitea.

**IZAGIRRE**  
barategia


Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiralez  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**


Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE



• ESAERA ZAHARRA •

“Gerorako gordea,  
katuak jaten ordea”

• JEROGLIFIKOA •



Non prestatu behar duzue  
oilaskoa?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10						11	
12					13		
14				15			
16			17				18
19							

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Haustezin. 9. Bururatu. 10. Itxura. 11. Galdetzeko partikula. 12. Gipuzkoan 628 m.ko mendia. 13. Animalientzat jangai estimagarria. 14. Infusio mota. 15. Hiri. 16. (Ald.) Musu. 17. Malko. 19. Baserritar.

**Bertikalak** 1. Benetan. 2. Elkarte gastronomikoa. 3. Gaur. 4. (Ald.) Gizon izena. 5. Gaixo. 6. Zamorako ibilgailuetan. 7. Italian jaio dena. 8. Baliogabe. 13. Gurdi. 15. (Ald.) Zu. 17. Sodioa. 18. Atzizkia.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Beltzaranak baino ilehoriak gus-tokoago dituen mutil jator bat ezagutuko duzu.

**Taurus** Gehien gorrotatzen duzun lagu-nak mesede handi bat egingo dizu.

**Gemini** Igandean ezkerreko hankarekin jeikiko zara.

**Cancer** Lan kontuak ez zaizkizu batere ondo joango.

**Leo** Azterketa latza jarriko dizue maisuak. Zertarako ikasi?

**Virgo** Ezusteko handi bat izango duzu bi egun barru.

**Libra** Zure oroitzapenetan mutil bakarra izango duzu.

**Scorpio** Asteburu txarra duzu orain-goan. Animo!

**Sagitaris** Datozen 15 egunetan ez duzu diru faltarik izango.

**Capricorn** Familiarekin eztabaida gogor bat izatekotan zaude.

**Aquarius** Egun eguzkitsuak ere beltz bilakatuko zaizkizu.

**Piscis** Bi mutil maite dituzu, zein baino zein gehiago. Utzi maitasunak gida zaitzan.

**KOLOREA BEGIRADA BIHURTZEN DA**  
KOLOREZKO LENTE KOSMETIKOAK MULTIOPTICASen



URDINAK, BERDEAK, GRISAK, NABARRAK... KOLOREA BEGIRADA BIHURTZEN DA ZUREGAN IRUDI BERRI BAT AURKITUZ. GRADUATUAK EDO GRADUAZIORIK GABEAK, INORK EZ DIZKIZU NABARITUKO. ZABAL ITZAZU BEGIAK ESTETIKA BERRIARI.



Ibargaray, 16 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

BAUSCH & LOMB

**MULTIOPTICAS**  
Beti Zuri Begira



· HIRUNE IRIBECAMPOSEN GOMENDIOA ·



Elurteekin telebista barik egotea oso ondo etorri zaiola esaten du Hirunek, telebistarekiko ume eta nagusiok daukagun dependetziak jabetzeko. "Alternatibak bilatzen jakin dugu, informazioa bilatuz edo elkarrekin jolas egin, eta edurretara irtenda". Bere gomendioa horrekin lotutakoa da: "Telebista beste barik ixotu beharrean, zer ikusi nahi dugun aukeratzea gomendatuko nuke, edozer gauza tragatu beharrean". Apur bat etxerako eginez edo, salbuespen moduko bat egiten du Hirunek: "hurbilekoa, guri dagokiguna non bildu badaukagu Arrasaten, ATBn" eta informazio horri garrantzitsu irizten dio.

· PROGRAMAZIOA ·



- 14 Igandea**
  - 8.15 Monterock
  - 8.45 Mondragol
- 15 Astelehena**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Mondragol
  - 2.00 Follow me
  - 7.30 Dokumentala
  - 8.8.30.9 Berriak
  - 9.30 Mondra Sport.
  - 10 Asteko zinea: Txip aparta
- 16. Asteartea**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Mondra Sport
  - 2.00 Follow me
  - 7.30 Dokumentala
  - 8.8.30.9 Berriak.
  - 9.30 ATB Pub
  - 10 Asteko zinea: Txip aparta
- 17 Asteazkena**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 ATB Pub
  - 2.00 Follow me
  - 7.30 Dokumentala
  - 8.8.30.9 Berriak.
  - 9.30 Tertulixan
  - 10 Asteko zinea: Txip aparta
- 18 Osteguna**
  - 1.30 Eguerdiko Berriak
  - 1.35 Tertulixan
  - 7.30 Dokumentala.
  - 8.8.30.9 Berriak.
  - 9.30 ATBketan.
  - 10 Asteko zinea: Txip aparta

Ostirala 19an San Jose eguna, ez da emisiorik izango ATBn.

· KOMIKIA ·



· SOLUZIOAK ·

LABAN.  
**JEROGLIFIKOA**  
 Rt.  
 8. Nulo. 13. Orga. 15. Uez. 17. Na. 18.  
 Egun. 4. Nodo. 5. Eri. 6. Za. 7. Italiar.  
**Bertikal** 1. Egaitan. 2. Torrepe. 3. gar. 19. Nekazari.  
 Oio. 14. Te. 15. Urt. 16. Ap. 17. Ne-  
 goratu. 10. Irudi. 11. Al. 12. Arno. 13.  
**Horizontalak** 1. Eneezin. 9. Go-  
**GURUTZEGRAMA**

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño. 6  
 Tfnoa: 76 06 78  
 ARRASATE

**LODITASUNA, LIPOESKULTURA, ZELULOLIPOLISIA.**

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

**ESTETIKA KLINIKA**

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
 ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiral  
 5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**ITSASKI**


ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
 ARRASATE

Tfnoa: 79 98 94





UNITED COLORS  
OF BENETTON.

SPRING / SUMMER COLLECTION 1993

# ORAIN ERE ARRASATEN

Maalako Errabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tnoa. 79 50 78 ARRASATE